TERRITORIOS DE LOS PINARES



Mapa de distribución potencial y actual de los PINARES.
Obsérvese la discordancia entre áreas potenciales y actuales, fenómeno fundamentalmente ligado a la intervención humana. En la demarcación cartográfica de áreas potenciales y actuales se han aunado criterios de entidad y biogeográfica.


PINUDIEN banaketa potentzialaren eta egungoaren mapa.
Ikus eremu potentzialen eta egungoen arteko diskordantzia, hain zuzen ere gizadiaren eskuharmenari estu-estu lotuta doan fenomenoa. Eremu potentzialen eta egungoen mugaketa kartografikoan entitate eta biogeografi irizpideak banatu dira.



Mendi-pinuz osaturiko pinudien kokapen topografikoa eta bere serie dinamikokoak. Larra.
1: Mendi-pinuen basoak errodoendroekin.
2: mendi-pinuen pinudiak azer-mahatsekin.
3: larredi alatuak eta arantzadunak.
4: estrepadiak. 5: larre barban kinofiloak (iturria: Loidi eta Básconesek. aldatua, 1995)

Posición topográfica de los pinares de pino negro de montaña y sus series dinámicas. Larra
1: pinar de pino negro de montaña con rododendro. 2: pinar de pino negro de montaña con gayuba. 3: pastizales almohadillados y punzantes. 4: cervunal. 5: pastizales malos quionófilos (Fuente: modificado de Loidi y Báscones 1995)

PINUDIEN EREMUIAK



Pinu gorrizko pinudi basofiloa:
 zuhaitz erresela nahiko nasaia delarik (1),
 basoaren oihanpea eta ertzetan babesgunea
 aurkitzen du ezpeldi hertsia (2)
 eta tarteka-marteka ipuruak eta arrosakarek ere
 lekua egiten dute bertan. Lurzoru txiroagoetan
 eta suteak sarri ematen direnetan basajatsaren
 (*Echinopartum horridum*) muluek, ipuru (4)
 eta albitz-belarrezko larreekin (3)
 batera, kokagune aproposa aurkitzen dute.
 (iturria: Rivas Martínez et al., 1991)

**El pinar basófilo de pino albar
y su serie dinámica**


Bajo un dosel bastante desahogado (1),
 el sotobosque y la orla del bosque acogen un
 bujedo denso (2) entreverado de enebros
 y diversas rosáceas. En los enclaves de suelo
 más pobre y reiteradamente incendiado
 se instalan las almohadillas de erizón
 (*Echinopartum horridum*) con enebro (4)
 y los pastizales bastos con lastón (3).
 (fuente: Rivas Martínez et al., 1991)

**Aleppo pinuen pinudi basofiloa
eta bere serie dinamikoa.**


Pinudiaren errezelan (1)
 karraska ere hedatzen da (2)
 Etapa erregresiboetan erromerodi-ekaidiak (3)
 ikus daitezke, hala nola, albiziak (4)
 eta lurzoruak alubialak jasotzen dituenen,
 espartzudia (5) zereal landaketez (6)
 txandakatzen da.
 (iturria: Loidi eta Básconesek aldatua, 1995)

El pinar de pino carrasco y su serie dinámica

En la orla del pinar (1)
 se desarrolla el coscojar (2)
 En etapas más regresivas son reconocibles el
 romeral-tomillar (3), el lastonar (4)
 y, sobre suelos de aporte aluvial, el espartal (5)
 alternante con cultivos de cereal (6)
 (fuente: modificado de Loidi y Báscones, 1995)



AMBIENTES ESPECIALES




Posición topográfica de las comunidades de acantilado costero

1: comunidad de fisuras con hinojo marítimo (*Chrithmum maritimum*). 2: comunidad de repisas con grama (*Festuca rubra* ssp. *pruinosa*). 3: comunidad de vulneraria (*Anthyllis vulneraria*) y margarita (*Leucanthemum vulgare*). 4: landa atlántica calcícola. (fuente: modificado de Aseginolaza et al., 1988)

Itsas labarretako komunitateen kokapen topografikoa.

1: arteketan hazten diren landareak: mihilua (*Chrithmum maritimum*). 2: erlaitzetan hazten diren oloak (*Festuca rubra pruinosa*). 3: zauribelarren (*Anthyllis vulneraria*) komunitatea eta San Joan lorea (*Leucanthemum vulgare*). 4: atlantiar landa kaltzikola. (iturria: Aseginolaza et al.-ek aldatua, 1988)




Posición topográfica de las comunidades de marisma

1: herbazal de *Elymus*. 2: juncal halófilo. 3: banda de *Halimione*, *Limonium* e *Inula crithmoides* con *Tamarix gallica* frecuentemente plantado. 4: comunidades de *Sarcocornia*, *Salicornia* y *Suaeda* que ceden, progresivamente, paso a *Halimione portulacoides*. 5: pradera de *Spartina* sumergida en pleamar. 6: comunidad permanentemente sumergida de *Zostera*. (fuente: Aseginolaza et al. 1988).

Paduretako komunitateen kokapen topografikoa.

1: *Elymus* belardia. 2: ihitoki halofiloa. 3: *Halimione*en zerrenda, *Limonium* eta *Inula crithmoides*, sarri landatua izaten den *Tamarix gallica*. 4: *Sarcocornia*, *Salicornia* eta *Suaeda* komunitateek progresiboki *Halimione portulacoides* egiten diote lekua. 5: Itsasgoran urez estaltzen diren *Spartina* landak. 6: *Zosteraren* komunitateak beti urez estalita egoten direnak. (iturria: Aseginolaza et al., 1988)

INGURUNE BEREZIAK




Posición topográfica de las comunidades de arenal

1: comunidad de *Euphorbia peplus*. 2: comunidad de barrón (*Ammophila arenaria*). 3: comunidad de perpétua (*Helichrysum stoechas*). 4: juncal. 5: landa atlántica. 6: pinar (plantado) de pino marítimo (*Pinus pinaster*).
(fuente: modificado de Herrera, 1988)

Hareatzetako komunitateen kokapen topografikoa.

1: *Euphorbia peplusezko* komunitatea. 2: harenondokoak (*Ammophila arenaria*). 3: betibizi horiak (*Helichrysum stoechas*). 4: ihitokia. 5: landa atlantiarra. 6: itsas pinuzko (*Pinus pinaster*) pinudi landatua.
(iturria: Herrerak aldaturik, 1988)




Posición topográfica de las comunidades nitrófilas.

1: comunidades rupestres. 2: comunidades de cunetas. 3: comunidades ruderales. 4: comunidades arvenses.
(fuente: modificado de Aseginolaza et al., 1988)

Komunitate nitrofiloen kokapen topografikoa.

1: haitzetako komunitateak. 2: arteketako komunitateak. 3: komunitate erruderalak. 4: komunitate arbensiarrak.
(iturria: Aseginolaza et al.-ek aldatua, 1988)

VEGETACIÓN DE AMBIENTES ESPECIALES




Posición topográfica de comunidades rupícolas.

- 1: comunidad de plataforma culminal. 2: comunidades de cantil con sus paredes, extraplomos, grietas y repisas. 3: comunidad de canchal fitoestabilizado. 4: comunidad de canchal activo. 5: bosque mixto de pie de cantil calizo

Errupikola komunitateen kokapen topografikoa

- 1: Goi-plataformetako komunitatea. 2: horma, labar, amildegia, arteka eta erlaitzetako komunitateak. 3: fitoestabilizatutako zelaletako landaredia. 4: harritza aktiboko landaredia. 5: Kararrizko labarretan eratzen diren baso mistoak.




Posición topográfica de la alameda-aliseda del Ebro.

- El soto ribereño exuberante (1) cede paso, en el talud que mira al río, a matorrales de saucedas (2) y comunidades ralas de casajera fluvial (3). En los recodos de aguas más remansadas prosperan comunidades acuáticas sumergidas (4) y carrizales (5).
(fuente: Aseginolaza et al. 1988)

Ebro inguruko lertxundia-haltzadiaren kokapen topografikoa.

- Ibaiertzetako baso oparoak (1) bide ematen die, ibaira ematen duten ezpondetan, sahastiei (2) eta erreka alboetako harkoskoguneetan hazten diren landare komunitate urriei (3). Ibai ibilguetako urgeldoetan urazpiko landare komunitateak (4) eta lezkek dute aterpea bilatzen (5).
(iturria: Aseginolaza et al., 1988)

LANDAREDIA INGURUNE BEREZIETAN




Posición topográfica

de las comunidades acuáticas de aguas estancadas

- 1: pastizal higrófilo con menta (*Mentha aquatica*, *Mentha pulegium*). 2: comunidad de llantén (*Plantago major*). 3: carrizal con espadaña y junco. 4: plantas sumergidas. 5a: plantas enraizadas en aguas someras. 5b: plantas enraizadas en aguas relativamente profundas. 6: plantas flotantes. (fuente: Aseginolaza et al. 1988).

Ibai ibilguetako urloetan hazten diren komunitateen kokapen topografikoa.

- 1: xipar-belarrez (*Mentha aquatica*, *Mentha pulegium*) osaturiko larre higrófiloa. 2: plantain handien (*Plantago major*) komunitatea. 3: ihiz eta lezkaz osaturiko lezkadia. 4: ur azpian hazten diren landareak. 5a: hondoera txikietan sustraitzen diren landareak. 5b: nahiko ur sakonetan sustraitzen diren landareak. 6: ur azaleko landareak. (iturria: Aseginolaza et al., 1988)



Posición topográfica de las comunidades de saladar

- 1: agrupaciones de sosa (*Suaeda braun-blauqueti*) y salicor (*Salicornia ramosissima*). 2: comunidad de *Salsola soda*. 3: comunidad de *Limonium viciosoi* e *Inula chrithmoides*. 4: tamarizal. (fuente: modificado de Ursúa, 1986)

Gatzagetako landare komunitateen kokapen topografikoa.

- 1: berun taldeak (*Suaeda braun-blauqueti*) eta beiraki-belarra (*Salicornia ramosissima*). 2: *Salsola soda* motako gatzaga belarrak. 3: *Limonium viciosoi* e *Inula chrithmoides* osaturiko belardia. 4: milazkadia. (iturria: Ursuak aldaturik, 1986)

EL GÉNERO QUERCUS

Antes de entrar en el tema y como aparte de las hayas y los pinos de todos conocidos, esta cuenca mediterránea del país está dominada por los robledales, carrascales, marojales, quejigales y coscojares, es decir, representantes del género *Quercus*, es necesario que hablemos de este amplio y variado género.

En el País Vasco, existen 7 especies distintas de *Quercus* además del *Quercus rubra* o roble americano originario de la zona Atlántica de Norteamérica. Ello, unido al numeroso conjunto de nombres, tanto científicos como vulgares que poseen, hace que su conocimiento sea especialmente difícil para el no versado. Por ello, para facilitar este conocimiento, comencemos por indicar los diversos nombres que poseen.

1. Roble noble. Roble común. Roble. Aritza. *Quercus robur* (= *Quercus pedunculata*)
2. Roble albar. Roble. Aritza. *Quercus petraea* (= *Quercus sessiliflora*)
3. Roble pubescente. Roble peludo *Quercus pubescens* (= *Quercus lanuginosa*)
4. Marajo. Rebollo. Roble tozo. Ametza. *Quercus pyrenaica* (= *Quercus Loza*)
5. Quejigo. Roble carrasqueño. Roble enciniego. *Quercus faginea* (= *Quercus lusitanica*)
6. Encina y carrasco. Artea. *Quercus ilex*
7. Coscoja. Chaparro *Quercus coccifera*

La clave que proponemos a continuación puede servir para distinguirlos:

Quercus de hoja caduca. Se despojan de la hoja de otoño: roble común y roble albar. Distinción entre ellos:

- **Roble común.** Bellota soportada por un largo pedúnculo. Hojas lobuladas, limbo tierno, lampiño, de 5 a 12 cm de longitud, con un corto pecíolo, menor de 10 mm. El pedúnculo que soporta las bellotas hace que haya sido denominado también *Quercus pedunculata*. Es el árbol de Gernika-Lumo el mayor de nuestros robles.
- **Roble albar.** Bellota sentada, sin pedúnculo. Limbo de hoja semejante, pero con un, pecíolo largo, de más de 12 mm. A la falta de pedúnculo en la bellota se debe el pseudónimo de *Quercus sessiliflora*, es decir, de flores sentadas. Las hojas de este roble son más membranosas que las del anterior y suelen persistir más tiempo en el árbol después de secas, sin llegar a ser marcescentes. Una vez desarrolladas son lampiñas en el haz y ligeramente tomentosas (pilosas) en el envés. Es casi de la talla del anterior.

Quercus de hoja marcescente, es decir, hoja que queda en el árbol después de marchita durante el invierno:

- pubescente,
- marajo
- quejigo.

La diferencia entre ellos:

Pubescente

QUERCUS GENEROA

Gaia aztertzen hasi aurretik, ohar bat egin behar dugu: hain ezagunak ditugun pago eta pinuez gain, Euskal Herriko arroa mediterranean horretan baditugu beste zuhaitz genero asko ere, hala nola: hariztiak, artadiak, ameztiak, erkameztiak eta abariztiak, hain zuzen ere, *Quercus* genero zabalaren barruan sartzen direnak. Horregatik, sail horretako hainbat generoren berri emango dugu.

Euskal Herriari dagokionez, zazpi espezie ditugu *Quercus* genero horretan, *Quercus rubra* edo haritz amerikarrak gain, Iparramerikako eremu atlantiarrekoak. Hori guztia bereiztea, izen asko izateaz gain —ez denak oso zientifikoak—, jakitun ez denarentzat bereziki zaila gerta daiteke. Horregatik, has gaitezen zer izen dituzten esaten, errazago ezagutzeko.

1. **Haritza** (Roble común. Roble noble). *Quercus robur* = *Quercus pedunculata*.
2. **Haritz kandugabea** (Roble albar. Roble). *Quercus petraea* = *Quercus sessiliflora*.
3. **Ametz ilaunduna** (Roble pubescente. Roble peludo). *Quercus pubescens* = *Quercus lanuginosa*.
4. **Ametza** (Marajo. Rebollo. Roble tozo). *Quercus pyrenaica* = *Quercus loza*.
5. **Erkametza** (Quejigo. Roble carrasqueño. Roble enciniego). *Quercus faginea* = *Quercus lusitanica*.
6. **Artea** eta **karraska** (Encina y carrasca). *Quercus ilex*.
7. **Abaritza**. **Txaparra** (Coscoja. Chaparro). *Quercus coccifera*.

Hobeto bereizteko gako bat proposatuko dugu:

Quercus hostoerorkorrak. Hostoa galdu egiten dute udazkenean: haritza eta haritz kandugabea. Nola bereiz daitezke:

- **Haritza.** Txorten luze batean izaten du ezkurra. Hosto gingilduna, orri samur edo bera, glabro edo ilegabea, 5-12 cm du luzean eta hosto-txorten laburra, 10 mm dituen. Ezkurrei eusten dien txortenagatik deitu izan zaio «haritz txortenduna» ere, *Quercus pedunculata*. Gure haritzik handiena da, esate baterako Gernika-Lumoko arbola.
- **Haritz kandugabea.** Txortetik gabekoa edo sesila du ezkurra. Orri aurrekoaren antzekoa du, baina hosto-txorten luzea, 12 cm baino gehiago neurtzen ditu. Ezkurak txortetik ez duelako, ematen diote *Quercus sessiliflora* edo sesil-lore izena. Aurrekoarenak baino mintzatsagoak ditu honek hostoak, aurrekoak baino gehiago, eta ihartu ondoren ere luzaroago irauten dute adarretan, usteltzera iritsi gabe. Hazi direnean, glabro edo ilegabeak dira gainaldean eta doi-doi iletuak azpialdean. Tamainaz aurrekoa adina hazten da ia.

Quercus hosto zimelkorrak. Zimeldu ondoren ere neguan zuhaitzean irauten duten hostoak dituztenak:

- ametz ilaunduna,
- ametza
- erkametza.

Honako desberdintasun hauek dituzte:

Ametz ilaunduna

- Hojas desarrolladas, tomentosas en haz y envés.
- Hojas de 5 a 11 cm. de longitud, por 3 a 6 cm. de ancho.
- Senos interlobulares del limbo poco profundos, de contorno parecido al del roble noble.
- Talla de 10 a 29 m.

Marojo

- Hojas desarrolladas, lampiñas en el haz, aunque vello-sas en el envés.
- Hojas mayores, de 7 a 16 cm de longitud, por 4 a 10 de ancho.
- Senos interlobulares profundos.
- Talla hasta 20 m.

Quejigo

- Hojas pequeñas, de 3 a 11 cm de longitud por 1,5 a 6 de ancho.
- El borde es festoneado con lóbulos agudos.
- Talla hasta 15 m, con frecuencia arbusto.

Quercus de hoja persistente durante el invierno:

- Encina,
- carrasco
- coscoja.

Encina y carrasco

- Se distinguen las subespecies encina (*Quercus ilex ilex*) y carrasco (*Quercus ilex rotundifolia*). Este último con las hojas menos alagadas que aquel. De todas formas la distinción es difícil.
- Talla: hasta 25 m de altura.
- Hoja discoloreada: verde y lampiña por el haz y clara y tomentosa por el envés. Limbo coriáceo de 3 a 7 cm. de longitud, de borde variado, entero o dentados.
- Gran polimorfismo foliar.

Coscoja

- Mata o arbusto de 1 a 3 m de alto.
- Hojas verdes y lampiñas por ambas caras. Coriáceas, rígidas y con bordes espinosos.
- Limbo de 2 a 6 cm de longitud.

* * *

Roble americano

Para concluir, y aunque la especie es exótica, queremos indicar que el roble americano posee hoja caduca.

- La hoja es mucho mayor que la de todos los demás robles autóctonos. Antes de caer adquieren coloraciones rojizas muy llamativas.
- Oscila entre 12 ó 20 cm de longitud.
- Los lóbulos son angulosos y puntiagudos.
- La cúpula de la bellota es aplanada y apenas rodea la base de ésta.
- Talla de 20 a 25 m.

- Hosto handi ilupaduna, gainean nahiz azpian.
- Hostoak 5-11 cm luzean eta 3-6 cm zabalean.
- Hosto-txokoak lobulu artekoak ditu, ez oso sakonak, eta haritzaren hostoen antzekoa du hosto ingurua.
- Neurritz 10-29 m bitartekoa da.

Ametza

- Hosto handiak, ilegabea dute gaina eta ileduna azpia.
- Hostoak luzean 7-16 cm ditu eta 4-10 cm zabalean.
- Hosto-txokoak lobulu artekoak eta sakonak ditu.
- 20 m neurtzen du gehienez ere.

Erkametza

- Erkametzak hostoak txikiak ditu, 3-11 cm luzean eta 1,5-6 cm zabalean.
- Hostoaren inguruak oxkardunak ditu eta gingil zorrotzak.
- Tamainaz gehienera 15 m izan dezake, eta askotan zuhaixka da.

Quercus honek hostoa iraunkorra du neguan:

- artea,
- karraska
- abarritza.

Artea eta karraska

- Bitarikoak bereizi ohi dituzte: artea (*Quercus ilex ilex*) eta karraska (*Quercus ilex rotundifolia*). Azkeneko horren hostoak ez dira hain horzdunak. Nolanahi ere, biak bereiztea ez da erraza izaten.
- 25 m-ko garaiera izatera heldu daitezke zuhaitz hauek.
- Bi koloretakoa du hostoa: gaina berdea eta glabro edo ilegabea, azpia zurixka eta ilupaduna. Hosto-orria larrikara du eta 3-7 cm ditu luzean; ertza, berriz, aldakorra, hosto horzduna edo osoa.
- Askotariko hostoak.

Abaritza

- Abaritza 1-3 m hazten den zuhaixka edo sastraka da.
- Hostoaren bi aldeak berdeak eta ilegabeak ditu, larrukarak, gogorak, eta ertzak arantzatsuak.
- Hosto-orriak 2-6 cm ditu luzean.

* * *

Haritz amerikarra

Amaitzeko, aipa dezagun atzerritik ekarria den «Norteko haritza» hosto erorkorra duela,

- eta gainera, bertako haritz mota guztiena baino handiagoa. Erori aurretik, kolore gorritza oso ikusgarri bat hartzen dute.
- Luzean 12-20 cm inguru neurtzen du.
- Hostoaren gingilak ertz askotakoak dira eta mutur zorrotzekoak.
- Zapala du ezkur-oskola, ezkurra bera doi-doi inguratzen duena.
- 20-25 m-ko garaiera izaten du.

ESPECIES FORESTALES



Hay que hacer notar que el nombre Aritz o Aretxa abarca a cuatro especies diferentes: al roble albar de fruto sentado, al roble albar de fruto pedunculado, al roble quejigo y al roble pubescente.

El otro nombre que el euskera dedica a los robles es Ametza, que designa al *Quercus pirenaica*, Otoza Roble tocorno, rebollo, almez.

Haritza (Roble). *Quercus robur*
edo *Quercus pedunculata*



Haritz zuria (Roble albar). *Quercus petraea* o *Quercus sesiliflora*



Abaritza (Coscoja, Chaparro).
Quercus coccifera.

BASOETAKO ESPEZIEAK

Oso gogoan hartzekoa da, «haritza» hitzak lau espezie hartzen dituztela bere baitan: haritz kandugabea, haritz kanduduna, erkametza eta ametz ilaunduna.

Ametza dugu beste euskal izen bat *Quercus pirenaica* eta beste haritz gehiago adierazteko.

Erkametza

(Quejigo, Roble Carrasqueño
o Roble enciniego)

Quercus faginea, *Q. lusitana*



Horra hor zer-nolako hostoak dituen.
Eta neguan ihartu ondoren ere
berekin izaten ditu.

Podemos observar como conserva su hoja,
también durante el invierno, aunque ya seca.

**Amerikako haritza edo haritz frantsesa (Roble americano)**

Quercus rubra, *Q. borealis*.

Iparramerikako Kanadatik eta Estatu Batuen
iparraldetik ekarria da Europara orain
berrehun bat urte. Azkar jarri zen hemengo
girora eta azkar hazten delako basoetako
espezi gisa landatzen da.

Udazkenean margo gorri ikusgarri
janzten dira haritz honen hosto handiak.

Procede del Canadá y la zona norte de
EEUU habiéndose introducido en Europa
hace doscientos años donde se ha aclimatado
por su rápido crecimiento, siendo cultivado
como especie forestal.

Sus grandes hojas adquieren en otoño
coloraciones rojo-pardas intensas,
muy vistosas.



ESPECIES FORESTALES



Artea (Encina, Carrasca). *Quercus ilex*

BASOETAKO ESPEZIEAK

**Encina, Carrasca (Artea). *Quercus ilex***

Es una especie propia de la región mediterránea aunque en la costa hay enclaves con condiciones ambientales que le son favorables lo que hace que encontremos manchas de encina en Bizkaia y Gipuzkoa.

Es árbol de hoja perenne, brillante y con el envés grisáceo y mate. Las masas boscosas adquieren una tonalidad oscura comparada con la del verde de los hayedos.

Su madera es dura, con gran riqueza de taninos; es buena base para la obtención del carbón.

Las flores masculinas forman ramos de aumentos de unos 5 ó 6 cm. de longitud de un verde amarillento, las flores femeninas son mucho menores y se sitúan en las axilas exteriores. El fruto es una bellota verde claro.

Artea (Encina, Carrasca). *Quercus ilex*

Eskualde mediterraneanarrekoa da espezie hau, baina Kantauriko kostaldean ere eremu batzuk aldekoak ditu eta horregatik horietan arte-masak ageri dira tarteka, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Zuhaitz honek hostoa iraunkorra du, gaina distiratsua eta azpia arre distira gabea. Pagadietako margo berde biziarekin alderatuta, iluna gertatzen da artadi-masen tonalitatea.

Gogorra da artearen egurra eta taninoetan aberatsa; oso ona izaten da ikatza egiteko.

Lore arrak sortaka izaten ditu, 5-6 cm luzeran eta margoz berde horiztak.

Lore emeak, berriz, askoz txikiagoak dira, gainaldeko hostoaren axiletan kokatuak. Ezkur berde argia ematen du.

CONÍFERAS

Si al describir el paisaje vegetal de la vertiente mediterránea del país, mostraremos la importancia del género *Quercus*, al describir el de la vertiente oceánica, observamos que aquí el dominio forestal lo marcan actualmente las coníferas.

Además, sobre esta diferencia entre las dos vertientes, se sobrepone otra. Mientras en la mediterránea los robles, quejigos, marojos y carrascos son autóctonos, en la oceánica, la inmensa mayoría de las coníferas son exóticas.

Expondremos una sencilla clave para la distinción de las coníferas arbóreas más importantes del país. Creemos que ello es tanto más interesante, cuanto que para muchas personas todo ese mundo de árboles son «pinos» siendo así que, aun contando solo aquellos que el montañero puede encontrarse fácilmente por el monte, existen más de media docena de géneros.

Arbóreas

Hojas aciculadas

- Acículas largas, de más de 3 cm. de longitud, agrupadas de dos en dos o de tres en tres *Pinus* (Pino)
- Acículas cortas, dispuestas en fascículos o pinceles de 15 o más unidades.
 - + Hoja caduca *Larix* (Alerce)
 - + Hoja persistente *Cedrus* (Cedro)
- Acículas cortas, aisladas de una en una
 - + Sin piñas. Con fruto primero verde y de maduro rojo, envolviendo parcialmente una semilla. Follaje muy oscuro *Taxus* (Tejo)
 - + Con piñas.
 - Si se arrancan las acículas de la ramilla que las soporta, queda una huella plana, que apenas roza al deslizar el dedo por ella *Abies* (Abeto)
 - Si se arrancan las acículas queda un saliente o soporte de ellas, que roza e impide el deslizamiento fácil del dedo. *Picea* (Abeto rojo)

Hojas escamosas

Chamaecyparis, *Cupressus*, *Thuja* (Ciprés y Tuya)

Arbustivas

Además de estos géneros arbóreos existe en el país otro género arbustivo, el género *Juniperus*

- enebros y
- sabinas

KONIFERAK

Quercus generoaren garrantzia azalduko dugu, Euskal Herriko Mediterraneoko isurialdeko zuhaitzien ikuspegi ematekoan, Kantauriko isurialdeko landarediak aztertzerakoan, koniferoak hemen gaur nagusi direla konaturatuko gara.

Horretaz gainera, bi isurialdeen artean bada beste alde handi bat ere: eremu mediterranean haritz, erkamez, ametz eta aleppo pinuak bertakoak diren bitartean, koniferorik gehienak kanpokoak direla Kantauri aldeko eremuan.

Euskal Herriko baso konifero nagusienak ezagutzeko gako bat ipiniko dugu. Eta guztiz jakingarri iruditzen zaigu, batez ere, jende askorentzat tankera bereko zuhaitz guztiak «pinu» direlako. Eta hala izanik ere, mendizaleak aisa aurki ditzakeanak baizik ez baditugu zenbatzen ere, badira sei gutxienez genero horretakoak.

Zuhaitz-hedadurakoak

Orratz-hostoak

- Orratz-hosto luzeak, 3 cm baino gehiagokoak, binaka eta hirunakako sortatan. Lerra (Pino). *Pinus*.
- Orratz-hosto laburrak, 15 izpi eta gehiagoko sorta edo isipu txikitan kokaturik.
 - + Hosto erorkorra: Alerzea (Alerce). *Larix*.
 - + Hosto iraunkorra: Zedroa (Cedro). *Cedrus*.
- Orratz-hosto laburrak banan banaka.
 - + Pinabururik gabeak. Fruitua, lehenik berde eta heldutakoan gorria, hazia erdi estalita izaten du. Hostotza iluna. Hagina (Tejo). *Taxus*.
 - + Pinaburudunak.
 - Orratz-hostoak beren adaxkatik kentzean, adaxkan aztarna zapala gelditzen da, behatzak ia ez nabaritzeko moduan. Izeia (Abeto). *Abies*.
 - Orratz-hostoa azikulatik kentzean, koska bat uzten dute txortenek, behatzak ederki nabaritzen moduan. Izei gorria (Abeto rojo). *Picea*.

Hosto ezkatadunak

Nekosta edo altzifrea eta tuia (Ciprés y Tuja). *Chamaecyparis*, *Cupressus*, *Thuja*.

Zuhaixkak

Zuhaitz-mota horietaz gainera badira Euskal Herrian beste zuhaixka edo sastrakak, *Juniperus* generokoak:

- ipuruak eta
- miterrak.

El género *Pinus*

El género más rico en especies de los citados es el *Pinus*, (pino). Para distinguir las especies existentes en el país puede servir esta clave:

- Acículas en grupos de 3 *Pinus radiata* (*insignis*) (Gipuzkoa-Bizkaia)
- Acículas en grupos de 2

Acículas menores de 6 cm. Piñas cortas (3-5 cm)

- Escamas de la piña con una prominencia grande en cuña o en gancho *Pinus uncinata* (pino negro) (*Larra*)
- Escamas de la piña con una prominencia mucho menor *Pinus silvestris* pino (pino silvestre o royo) (Erronkari, Valdegovia)

Acículas mayores de 6 cm.

- Acículas flexibles de 7-10 cm. Piña pedunculada. Tronco tortuoso. *Pinus halepensis* (pino carrasco) (Ribera navarra)
- Acículas rígidas. Piña sin pedúnculo.
 - + Acículas menores de 15 cm. Piñas de 6-8 cm. *Pinus nigra* (Pino laricio)
 - + Acículas mayores de 15 cm. Piñas grandes de más de 10 cm. *Pinus pinaster* (Pino marítimo)

Pino insigne

Entre todas estas especies citadas, la más extendida, con mucho, en la vertiente cantábrica, es el pino insigne. Esta es además la especie arbórea que domina el paisaje guipuzcoano y vizcaíno por debajo de los 600 m de altitud. La zona de origen de este pino es la costa californiana de Estados Unidos, al Sur de San Francisco. Por hallarse la mancha autóctona mayor en Monterrey, se le llama también Pino de Monterrey. El enorme desarrollo que ha adquirido esta especie se ha debido principalmente a que su madera es excelente para la fabricación de pasta de papel.

Hemos de decir, sin embargo, que estos pinares no siempre sustituyeron a grandes hayedos y robledales, como algunos creen, ni muchísimo menos. Primeramente comenzaron a sustituir a castaños, que venían siendo atacados por la tinta, enfermedad que proviniendo de Italia, supuso un duro golpe para muchos caseríos. Posteriormente, los pinares ocuparon argomales, brezales y helechales, surgidos ellos por una anterior deforestación de robledales y hayedos.

Por encima de la altitud citada, se han introducido otras especies de coníferas como el alerce, el pino laricio, los abetos, el ciprés de lawson, etc.

Pinus generoa

Aipaturiko espezetan generorik aberatsena da Lerra edo pinua (Pino) *Pinus*. Euskal Herrian dauzkagun pinu-motak ezagutzeko, hona hemen gakoak:

- Orratz-hostoak hirunakako tortotan, Intsinis pinua (Pino de Monterrey). *Pinus radiata*, Bizkaian eta Gipuzkoan.
- Orratz-hostoak binakako tortotan.

Orratz-hostoak, 6 cm baino laburragoak. Pinaburuak laburrak (3-5 cm).

- Pinaburuaren ezkatat, tontor zorrotza falkan edo gakoan. Mendi-pinua (Pino negro) *Pinus uncinata*.
- Pinaburuaren ezkatat oso txikiak, Pinu gorria (Pino silvestre o royo) *Pinus silvestris*. Erronkari eta Gaubean.

Orratz-hostoak, 6 cm baino luzeagoak.

- Orratz-hostoak malguak, 7-10 cm, eta pinaburua txortenduna. Bihurria du enborra. Alepo pinua. (Pino carrasco) *Pinus halepensis*. Nafarroako Erriberan.
- Orratz-hosto zurrunak. Txorten gabeko pinaburua.
 - + Orratz-hosto txikiak 15 cm baino motzagoak. Pinaburuak 6-8 cm. Laricio pinua (Pino negro) *Pino laricio*.
 - + Orratz-hosto handiak 15 cm baino luzeagoak. Pinaburuak 10 cm baino luzeagoak. Itsas pinua (Pino marino). *Pinus pinaster*.

Intsinis pinua

Pinu espezie guztion artetik Euskal Herrian, Kantauri isurialdean, zabalduena intsinis pinua da. Bera da gainera 600 m-az azpitik Bizkaia eta Gipuzkoan zuhaitzien paisaian espezie nagusia. Pinu hori jatorriz, Iparramerikako Estatu Batuetako Kaliforniarra da, San Frantzisko baino hegoalderago sortua. Jatorrizko sailik handienak Monterreyen daudenez, esan ere «Monterrey pinua» deitzen zaio. Bere egurra paper-pasta egiteko material bikaina denari esker espezie horrek izan duen garapena ikusgarria da.

Hala ere, esan dezagun zenbaitek besterik uste badu ere, pinudiek ez dutela harizti eta pagadi bikainek utzitako zulorik bete, ez inola ere. Lehenik, pinuak gaztainadien lekua hasi ziren hartzen, baserriarentzat hain kolpe handia izan zen Italiatik etorritako gaitzak, «tintak», jo zituztean. Hurrena, berriz, lehendik galduta zeuden pagadi eta hariztiak kendu ondoren sortutako otadiak, txilardiak eta iratzediak garbituriko sailtan landatu zituzten.

Lehen aipaturiko 600 m-ko garaieratik gora beste konifero espezie batzuk sartu dira: alertzeak, larizio pinuak, izeiak, zedroak (Lawsoniana), etab.

CONÍFERAS ARBÓREAS



Abeto
Izeia



Pino Alepo
Aleppo pinua

Larizio pinua
Pino Laricio



Ler gorria edo pinu gorria
Pino Silvestre



KONIFERO-ZUHAITZAK



Aleppo pinua (Pino Carrasco). *Pinus alepensis* Mill.

Eremu mediterranearreko espeziea da eta eskualde horretako paisaian erraz ezagutzen da. Horrelako gunen askotan tamainako horretako landare bakarra bera izaten da.

Pino Carrasco (Aleppo pinua). *Pinus alepensis* Mill.

Es una especie propia de la zona mediterránea e inconfundible en los paisajes de esta área. Es en muchas zonas la única presencia vegetal de cierto porte.


Pino carrasco (*Pinus halepensis*).
Vedado de Egúaras-Bardenas.

Aleppo pinua (*Pinus halepensis*).
Egúaras-Bardeetako barrutia.






QUERCUS GENEROA. EUSKAL HERRIKO ESPEZIEN HOSTO MOTAK

GÉNERO QUERCUS. HOJAS DE LAS ESPECIES DE EUSKAL HERRIA



EUSKAL HERRIKO LERRA EDO PINUEN ORRATZ-HOSTOAK ETA PINABURUAK
ACÍCULAS DE LAS ESPECIES DE CONÍFERAS DE EUSKAL HERRIA



Kostaldeko landaredia

Vegetación de la costa



Tramo de costa entre Getaria y Zarautz

Kostaldea Getaria eta Zarautz artean.

Situación geográfica y climática

La Costa Cantábrica, que desde Galicia viene siguiendo la dirección Oeste-Este, cambia bruscamente su orientación a partir de la desembocadura del Bidasoa dirigiéndose hacia el Norte. Forma así un extenso golfo, el de Bizkaia, en cuyo centro se sitúa el litoral vasco, nexo de unión de dos tipos de costa distintos entre sí, escarpada y vertical la que llega del Oeste, baja y arenosa la que se dirige hacia el Norte.

Climáticamente se caracteriza por su elevada pluviosidad y temperatura suave, debidos a dos factores complementarios: su situación geográfica en la zona templada del Hemisferio Norte, y la corriente del Golfo que baña nuestras costas, lo que acarrea la benignidad de las temperaturas invernales, factor esencial para el desarrollo y la pervivencia de algunas especies.

Encuadre fitogeográfico

La vertiente atlántica de Euskal Herria se encuadra fitogeográficamente dentro de la región Eurosiberiana, que se extiende desde Galicia por la cornisa cantábrica hasta la Europa septentrional. Los pisos bioclimáticos (agrupación de comunidades vegetales que se suceden en una serie altitudinal y latitudinal) de la región Eurosiberiana presentes en nuestra zona se reducen a dos, colino y montaño; la comarca costera queda incluida toda ella dentro del piso colino.

La mediterraneidad, sequía de verano y temperaturas suaves, es mayor en el sector occidental de nuestra costa; esto explica que en el litoral vizcaíno haya una presencia más elevada de elementos florísticos mediterráneos.

Fisiografía de la costa

La suma de distintos factores geológicos y climáticos ha condicionado la formación del relieve litoral. Los cambios del mismo observados a lo largo de la cornisa que bordea el océano han creado una serie de hábitats diferenciados, donde aparecen aquellas comunidades que mejor se adaptan a ellos. En consecuencia, distinguimos en el litoral tres grandes ambientes desde el punto de vista ecológico, a saber:

- acantilados,
- playas,
- estuarios.

Cada uno por sus particulares condicionamientos, albergarán cada uno toda una serie de comunidades vegetales características.

Las montañas en el País Vasco llegan hasta el mar, donde se hunden formando abruptos *acantilados* separados por ensenadas asociadas a la desembocadura de los ríos.

Es aquí donde se acumula la arena que arrastran las corrientes dominantes del W formando *playas* en las zonas llanas.

Por otra parte, los ríos de mayor caudal transportan cantidades considerables de sedimentos que depositan en su

Kokapen geografikoa eta klimatikoa

Kantauriar Kostaldeak Galizian hasi eta Mendebalde-Ekialde noranzkoari jarraitzen dio Bidasoa ibaiaren bokaleraino. Hor zakar-zakar aldatzen du norabidea eta Iparralderantz jotzen du. Hala, golko zabal bat eratzen du, Bizkaikoa. Golko horren erdian kokatzen da euskal kostaldea. Bi kostalde motaren arteko lokarria da Euskal Herrikoa: bat, malkartsua eta bertikala da, Mendebaldetik datorrena; eta bestea, hareatsua eta baxua, Iparralderantz doana.

Klima aldetik, bi dira bereizgarri nagusiak: euri asko egiten du eta tenperaturak leunak dira. Bi dira, halaber, bereizgarri horien eragileak: kokapen geografikoa, batetik, Iparraldeko Hemisferioaren eremu epelean kokatzen baita, eta Golkoko korrantea, bestetik. Korrante horrek gure kostaldea bustitzen du eta neguko tenperaturak epeldu egiten ditu. Baldintza ezinbestekoa da hori zenbait espeziaren garapenerako eta biziraupenerako.

Kokapen fitogeografikoa

Euskal Herriko isurialde atlantikoa Eurosiberiako eremuan kokatzen da fitogeografia aldetik. Eremu hori Galiziatik Europa iparralderaino hedatzen da Kantauriko erlaitzean barna. Gure eskualdean Eurosiberiako eremuko bi estai bioklimatiko baino ez daude: muinotarra eta menditarra; kostalde osoa estai muinotarrean biltzen da. (Altitude eta latitude-segida batean agertzen diren landare-komunitateen multzoari esaten zaio estai bioklimatikoa).

Mediterraneotasuna, udako lehortea eta tenperaturen leuntasuna handiagoa da gure kostaldearen mendebaldeko eremuan; horregatik dago Bizkaiko kostaldean Mediterraneoko florako elementu gehiago.

Kostaldearen fisiografia

Geologiari eta klimari loturiko hainbat faktorek baldintzatzen du kostaldearen erliebea. Kostalde hori aldatu egiten da ozeanoaren ertzeko erlaitzean zehar eta, hala, hainbat habitat aparteko sortu dira. Habitat horietako bakoitzera hobekien egokitutako komunitateak agertzen dira tokian-tokian. Horrenbestez, ekologiaren ikuspegitik hiru eremu nagusi bereizten dira kostaldean:

- labarrak,
- hondartzak,
- estuarioak.

Horietako bakoitzak bere baldintza eta bereizgarriak ditu eta, beraz, landare-komunitate bereziak hartzen ditu.

Euskal Herriko mendiak itsasoraino iristen dira eta ozeanoan hondoratzen dira *labar malkartsuak* sortuz. Ibaien bokaleei loturiko senadiak bereizten dituzte labar horiek.

Senadi horietan metatzen da W-ko korrante nagusiek arrastan eramandako harea.

Eta, hala, *hondartzak* sortzen dira ingurune lauetan. Bestalde, emari handiena duten ibaiek jalkin kopuru han-

tramo final, formando los *estuarios*, zonas llanas y encharcadas dominadas por las ciénagas o marismas.

Factores que influyen sobre la vegetación

En la vegetación costera debemos hacer distinción entre

- aquellas comunidades exclusivas del litoral, que no se repetirán en el interior (excepto parcialmente en las intermediaciones de las salinas, donde podemos encontrar algunas de las especies)
- y aquellas otras constituidas por bosques o sus comunidades de sustitución, que también se encuentran en el resto del territorio, si bien presentan en las costas algunos elementos diferenciadores

La *vegetación estrictamente litoral* ofrece peculiaridades muy señaladas, debidas sobre todo a la **alta concentración de sales** en el medio. Las pequeñas gotas de agua salada que el viento levanta, bañan continuamente el entorno impregnando de sales tanto el suelo como las plantas, lo que da lugar a una elevada presión osmótica. Esta tiende a extraer el agua del interior de la planta o dificulta que se absorba por las raíces, provocando una situación de sequía. Para evitar la pérdida de agua, las plantas han desarrollado mecanismos que dificultan la transpiración y tejidos especiales donde acumulan el elemento líquido; así, es común que muchas especies del litoral presenten órganos crasos o carnosos con una gran concentración salina en sus jugos, o que mediante el enrollamiento lineal de sus hojas y con cubiertas ceras impermeables, disminuyan la transpiración, caso de algunas gramíneas.

Esta falta se hace muy patente en los estuarios, en los que el agua salobre, al ascender la marea, baña las tierras donde se asientan las plantas, llegando incluso a cubrirlas más o menos completamente.

Hay otros factores físicos que aunque no sean exclusivos de las zonas costeras, adquieren en ellas gran importancia. En nuestro litoral **los vientos dominantes del Noroeste** ejercen una continua acción mecánica en las laderas que hacia allí se orientan, impidiendo el desarrollo de la vegetación arbórea; en su lugar encontraremos con frecuencia unas curiosas formaciones achaparradas siguiendo la dirección del viento.

Por último, indicar que la existencia de las comunidades vegetales actuales no es debida exclusivamente a los factores determinantes de hoy día, sino que, en gran medida, es **fruto de una historia** en la que debemos remontarnos a épocas geológicas precedentes, marcadas por cambios climáticos graduales o en ocasiones bruscos que dieron lugar a la desaparición de ciertas comunidades, la supervivencia de otras en los ambientes más resguardados y la aparición y extensión de nuevas plantas mejor adaptadas a las condiciones cambiantes.

Más recientemente, la **acción humana** ha ido remodelando el paisaje vegetal, adecuándolo a sus necesidades, y causando en muchos casos, un progresivo deterioro de las formaciones vegetales maduras, hasta hacerlas desaparecer o dejando únicamente retazos arrinconados en espacios cada vez menores.

di samarrak eramaten dituzte eta azken zatian uzten dituzte. Hala sortzen dira *estuarioak*, eremu lauak eta putzuz beteak. Lokaztiak eta padurak nagusitzen dira eremu horietan.

Landaredian eragiten duten faktoreak

Kostaldeko landaredian bi komunitate mota bereiz ditzakegu:

- itsasertzekoak baino ez direnak edo barnealdean errepikatzen ez direnak (partzialki, gatzagen inguruetan izan ezik; horietan, espezie batzuk aurkitzen ahal dira)
- eta lurralde osoan zabaldutako baso eta haien ordezkoko komunitateak. Nolanahi ere, kostaldean osagai bereizgarri batzuk dituzte komunitate horiek.

Itsasertzean baino hazten ez den landarediak oso ezaugarri zehatzak ditu, ingurunean kontzentratzen den **gatz kantitate** handiagatik batez ere. Haizeak ur gaziaren tanta txikiak harrotzen ditu eta tanta horiek etengabe bustitzen dute ingurunea; hala, bai lurra eta bai landareak gatz ez blaitzen dira eta, hala, presio osmotiko handia sortzen da. Presio horrek eragiten du landarearen barrutik ura ateratzea edo nekezagoa egiten du ur hori sustraien bidez xurgatzea; hala, lehorte-egoera eragiten du. Ura ez galtzeko, landareek transpirazioa zailtzeko mekanismoak garatu dituzte, bai eta ehun bereziak ere elementu likidoa pilotzeko; hala, ohikoa da itsasertzeko espezie askok organo zukutsuak edo haragitsuak izatea, eta zuku horietan gatz-kontzentrazio handiak; ohikoa da, orobat, hostoen kiribiltze linealaren bidez eta ezkozko estalki iragazgaitzen bidez transpirazioa gutxitzea; horrela egiten dute, adibidez, gramineo batzuek.


Hutsune hori oso nabarmena da estuarioetan: ingurune horietan, mareak gora egiten duenean, ur gazikarak busti egiten du landareak finkatzen diren lurzorua; areago, estali ere egiten du zenbaitetan, gutxi-gehiago oso-osorik.

Badira beste faktore fisiko batzuk kostaldeko inguruneetan bakarrik eman ez arren, zonalde horietan garrantzia handia hartzen dutenak. Gure kostaldean **ipar-mendebaldeko haizeak** dira nagusi; haize horrek etenik gabe eragiten du isurialde horretara begira dauden mendi-hegaletan eta zuhaitzak haztea galarazten du. Horren ordez, sarritan formazio mozko batzuk egoten dira haizearen noranzkoari jarraituz.

Azkenik, aipatzekoa da egun existitzen diren landare-komunitateak ez direla soil-soilik gaur egungo baldintzen ondorio; aitzitik, hein handi batean, **historiaren emaitza** ere badira. Horrela, geologiaren aurreko garaietara egin behar da atzera: aldi horietan, klima aldatuz joan zen pixkanaka eta, inoiz, baita era bortitzean ere; aldaketa horien eraginez komunitate batzuk desagertu egin ziren, beste batzuk bizirik atera ziren giro babesagoetan eta, azkenik, baldintza aldakor horietara hobeki egokitutako beste landare batzuk agertu eta zabaltu ziren.

Azken garaiotan, **gizakiaren eraginak** eraldatu egin du paisaia landarediaren ikuspegitik, bere beharretara moldatu du eta, kasu askotan, pixkanaka hondatu egin ditu landare-formazio helduak; batzuetan, desagerrarazi egin ditu edo ale baztertu soil batzuk utzi ditu gero eta eremu txikiagoetan.

ITSASLABARRETAKEO ESPEZIEAK - ESPECIES DE ACANTILADO



VEGETACIÓN DE LOS ACANTILADOS

Las montañas que constituyen gran parte del paisaje vasco, llegan hasta el mar, donde forman una línea casi continua de acantilados, que la incesante acción erosiva del océano va desgastando, hasta convertirlas en paredes casi verticales.

Los cantiles rocosos ofrecen unas condiciones poco aptas para el desarrollo de la vegetación. Las plantas más cercanas al mar han de aguantar las salpicaduras de las olas, que amén de su salinidad, se llevan el poco suelo que haya podido formarse, viéndose relegadas a vivir en las fisuras de la roca. Es en las fisuras donde se instalan dos especies de hojas carnosas, muy características y frecuentes,

- la umbelífera *Crithmum maritimum* y
- el llantén de hojas en roseta *Plantago maritima*.

En las oquedades sombrías de las rocas podemos encontrar:

- el *Asplenium marinum*, un pequeño helecho igualmente característico y exclusivo del litoral
- el culantrillo, *Adiantum capillus-veneris* aparece en cuanto hay cierta humedad o corre un hilillo de agua
- la cariofiléa *Spergularia rupicola*, en los acantilados areniscos como Ulia y Gorliz aparece a este nivel también fisurícola.

Por encima de esta banda, en las repisas y taludes de pendiente más suave donde la influencia del mar no es ya drástica y se puede acumular algo de tierra, aparece un césped muy denso en el que domina:

- la gramínea *Festuca rubra* subespecie *pruinosa* de hojas largas y muy finas.

En ocasiones, como ocurre en los acantilados de Punta Galea llega a formar extensiones considerables esta comunidad herbácea que posee una mayor variedad de especies, con un índice de cobertura bastante elevado.

Abundan a este nivel:

- la zanahoria silvestre *Daucus carota* subespecie *gummifer*,
- la margarita *Leucanthemum crassifolium* de hojas carnosas,
- la leguminosa *Anthyllis vulneraria*, en ciertas zonas,
- el tamariz *Tamarix gallica*, en solitario o formando pequeños rodales,
- la lechetrezna *Euphorbia villosa*.

En algunos puntos de los cantiles florecen

- el alhelí *Matthiola incana*, de hojas grises cubiertas de fino tomento,
- la crucífera *Brassica oleracea*, de flores amarillas, pariente de la berza cultivada.

En los acantilados, cuando son calizos o margocalizos se presenta una flora más variada como:

- la compuesta *Helichrysum stoechas* una de sus plantas más características.

LABARRETAKO LANDAREDIA

Mendiek Euskal Herriko paisaiaren puska handia osatzen dute. Mendiak, gainera, itsasoraino iristen dira. Labar-lerro ia jarraitua osatzen dute kostalde horretan; ozeanoaren ekin iraunkorra higitzen doa itsaslabar horiek, horma ia bertikalak bihurtzeraino.

Harkaitz-itsaslabarretan baldintzak ez dira batere egokiak landaredia hazteko. Itsasotik hurbilen dauden landareek olatuen zipriztinak jasan behar dituzte, baita haien gazitazuna ere. Landare horiek eramaten dute eratu den lurzoru apurra eta harkaitzaren artesietan bizi beste modurik ez dute.

Artesietan ezarri dira hosto haragitsuko bi espezie, oso bereziak eta ohikoak:

- umbelífera *Crithmum maritimum* eta
- itsas zain-belarra *Plantago maritima*, erroseta-formako hostoak dituen landarea.

Harkaitzetako arrakala ospeletan aurki dezakegu:

- *Asplenium marinum*. iratze txikia, oso berezia eta itsasertzekoa erabat,
- garaizka edo xardin-belarra *Adiantum capillus-veneris* agertzen da, hezetan pixka bat eta ur-xirripa bat dagoen tokietan.
- kareofilazeo *Spergularia rupicola* ere agertzen da artesietako landarea. Hareharritzko itsaslabarretan, Ulian eta Gorlizen, esaterako.

Lerro horren gainetik, erlaitzetan eta malda txikiagoko ezpondetan, itsasoaren eragina jada ez da hainbestekoa eta lur pixka bat metatu daiteke. Ingurune horietan belardi oso trinkoa agertzen da eta zelai horretan,

- gramíneo bat *Festuca rubra*, *pruinosa* azpi-espeziea nagusitzen da, hosto luze eta oso finekoa.

Batzuetan, Punta Galeako itsaslabarretan, esaterako, hedadura zabalak osatzen iristen da. Belar-komunitate horrek espezie-aniztasun handiagoa du eta estaldura-maila nabarmena.

Maila horretan ugari dira espezie hauek:

- mandaperrexila, *Daucus carota*, *gummifer* azpi-espeziea:
- *Leucanthemum crassifolium* hosto haragitsuko bitxilorea,
- *Anthyllis vulneraria* lekaduna, zenbait ingurunetan.
- milazka *Tamarix gallica* ere, bakarrik edo unada txikiak osatuz,
- lechetrezna *Euphorbia villosa* espeziea ere.

Itsaslabarretako zenbait gunetan:

- *Matthiola incana* ahuntz-praka loratzen da, ilupa finez estalitako hosto griseko lorea,
- *Brassica oleracea* gurutzaduna, landatutako azaren ahai-dea.

Itsaslabarretan, kareharritzkoak edo margo-kareharritzkoak direnean, flora anitzagoa da:

- *Helichrysum stoechas* espeziea da ingurune horretako landare bereizgarrietako bat.

Resaltamos entre estos acantilados calcáreos,

- el de Biarritz, formado por calizas nummulíticas
- los arrecifales masivos de Bizkaia (Kabio a Matxixako, Ogoño y Lekeitio), pues presentan una flora peculiar caracterizada por la existencia de plantas tales como:
- *Limonium binervosum*
- *Armeria maritima*.

Otras especies reseñables son:

- *Globularia nudicaulis*, en varios puntos de la costa y
- *Cochlearia danica*, muy rara, en Bizkaia.

Destacamos finalmente, la presencia de poblaciones considerables aunque restringidas a ciertos enclaves costeros (Urgull, Ulia y Jaizkibel en Gipuzkoa y Gorliz y Matxixako en Bizkaia),

- *Armeria euscadiensis*, plumbaginacea de bellas flores rosadas, endémica del litoral vasco.

A medida que ascendemos por los cantiles margosos o calizos y en la parte superior de éstos, hallamos en amplios tramos del litoral un tipo de matorral constituido principalmente por especies no halófilas. Este matorral está muy marcado en su aspecto por el viento marino, que hace tomar a las matas una forma pulvinular, almohadillada. En estas comunidades encontramos muchas plantas de los bosques que se situarían inmediatamente detrás, y sobre todo de sus comunidades de sustitución. Así:

- la argoma *Ulex europaeus* una leguminosa de flores amarillas,
- la genista, *Genista hispanica* subespecie *occidentalis*,
- el brezo, *Erica vagans*.

A menudo sobre estas matas y entre ellas se desarrolla:

- la zarzaparrilla, *Smilax aspera*,
- la Rubia peregrina,
- la hiedra *Hedera helix*, y
- la *Rosa sempervirens*.

Entre los arbustos de talla algo más elevada son comunes

- el durillo, *Rhamnus alaternus*, y
- el madroño, *Arbutus unedo*.

Entre las hierbas:

- la graminea *Brachypodium pinnatum* es la más abundante.

Las carreteras que recorren nuestra costa tanto en Bizkaia, como en Gipuzkoa, entre Zarautz y Deba, o en Lapurdi entre Hendaia y Socoa son observatorios adecuados para contemplar estas comunidades de acantilados.

Kareharrizko itsaslabarren artean nabarmentzekoak dira

- Biarritzekoa, kareharri nummulitikoak eratua,
- eta Bizkaiko uharri masibokoak (Kabiotik Matxixakora, Ogoño eta Lekeitio); izan ere, labar horietan oso berezia da flora, espezie bitxiak hazten direlako; hala nola,
- *Limonium binervosum*
- *Armeria maritima*.

Beste espezie aipagarri batzuk hauek dira:

- *Globularia nudicaulis*, kostaldeko hainbat ingurunetan
- *Cochlearia danica*, oso ezohikoa Bizkaian.

Nabarmentzekoa da, azkenik:

- *Armeria euscadiensis* plumbaginazeoaren populazio handi samarrak daudela kostaldeko zenbait ingurunetan.

Arrosa koloreko lore ederrak ditu landare horrek eta euskal kostaldeko espezie endemikoa da; leku oso jakinetan baino ez da aurkitzen: Gipuzkoan, Urgull, Ulia eta Jaizkibelen, eta Bizkaian, berriz, Gorliz eta Matxixakon.

Tuparri eta kareharrizko itsaslabarretatik gora joan ahala, horien goialdean, nagusiki espezie ez halofiloak osatutako **sastraka mota bat** hazten da kostaldeko ingurune zabalean. Itsasoko haizeak erabat eragiten dio sastraka horien itxurari; hala, haizearen eraginez muluek kuxin-forma hartzen dute. Komunitate horietan justu atzean kokatzen diren basoetako landare asko hazten da, eta batez ere baso horien ordezkoko komunitateetan hazten diren landare asko.

Hala:

- ote zuria, *Ulex europaeus*, lekaduna oso ohikoa den lorea
- otabera, *Genista hispanica*, *occidentalis* azpi-espeziea,
- txilarra, *Erica vagans*.

Sarritan, mulu horien gainean eta artean jaiotzen dira:

- endalarra *Smilax aspera*,
- Rubia peregrina,
- huntza *Hedera helix* eta
- *Rosa sempervirens* jaiotzen dira.

Zuhaixka altuxeagoen artean, ohikoak dira:

- gogortxua, *Rhamnus alaternus* eta
- gurbitza, *Arbutus unedo*.

Belarren artean:



- *Brachypodium pinnatum* gramineoa da ugariena.

Gure kostaldea zeharkatzen duten errepideak, bai Bizkaikoak, bai Gipuzkoakoak, eta bai Lapurdikoak behatoki egokiak dira itsaslabarretako komunitate horiek begiesteko. Gipuzkoan, Zarautz eta Deba arteko errepidea da behatoki onena; Lapurdin, Hendaia eta Socoa artekoa.

ESPECIES DE ACANTILADO

Itsaslabar baten irudimenezko ebaketa,
ingurumen horretako landarerik
bereizgarrienak adierazten dituenak;
besteak beste azak *Brassica oleracea*,
Armeria euscadiensis edo
Armeria cantabrica
Gorostia (Acebo). *Ilex aquifolium*

Zuhaixka edo sastraka hau ez da 6 m baino gehiago hazten.
Hostoak iraunkorrak eta distiratsuak ditu eta hosto ertzak bihurri eta arantzadunak.
Loreak, berriz, dioikoak ditu, txikiak, zuriak, hosto txokoetan maiatz-ekainean sortzen direnak.
Fruitu borobilak ematen ditu neguan, ilarraren tamainakoak.
Egur ona du zurgintzarako. Eguberrietan gorosti adarrak apaingarri erabili izan dira. Baina, gaur egun babespeko espeziea da.

ESPECIES ARBÓREAS



Tejo (Hagina). *Taxus baccata*

Árbol pequeño, que rara vez pasa de los 10 m de altura.

Tronco corto, que puede alcanzar gran diámetro, de color pardo-grisáceo.

Copa ancha, con ramas muy numerosas.

Hojas perennes, de color verde oscuro, lineares, planas, de unos 3 cm de longitud, insertas helicoidalmente, aunque se disponen más o menos sobre un plano.

Es un árbol dioico, es decir, que unos individuos sólo dan flores masculinas y otros sólo femeninas.

Los pies femeninos dan una semilla casi totalmente cubierta por una envuelta roja (el arilo).

Madera dura, muy resistente, admite un bello pulimento.

Ha sido usada en ebanistería.

Las hojas y la madera contienen un alcaloide tóxico para el hombre y el ganado, en especial el caballo.

En la subida de Narbaitzu a la aguda cresta de Urkietza (Orexa-Lizartza) pueden verse, en la ladera oriental de esta montaña, magníficos ejemplares de tejos, entre las hayas. En invierno, cuando la haya está sin hojas, destacan mucho más.

Este árbol está presente en el escudo de Gipuzkoa.



Hagina (Tejo). *Taxus baccata*

Zuhaitz txikia da, nekez haziko da 10 12 m baino gehiago.

Enborra motza du baina diametroz asko zabaldu daiteke.

Arre grisaxka du azalaren kolorea.

Adaburu zabalekoa da, eta guztiz adartsua.

Iraunkorrak ditu hostoak, 3 cm-ko berde ilunak, lerroan kiribiletan jarriak nahiz eta gutxi-asko plano berean.

Zuhaitz dioikoa da hagina, hau da, zuhaitz batzuek lore arrak ematen dituzte eta beste batzuek lore emeak, guztiz berezita.

Lore emeak ariloa deritzon

estalki gorri-gorrian ia zeharo bildua ematen du hazia.

Oso gogorra da haginaren egurra eta iraunkorra, leundurik oso polita da zura. Altzarigintzan erabili izan da.

Bai hostoak, bai egurrak alkaloidetoxiko bat izaten du gizakientzat eta abereentzat, zaldi-aziendarentzat, batez ere.

Narbaitzitik Urkietza mendi-gailur zorrotera igotzerakoan (Orexa-Lizartza), mendi horren mendebaldean, hagin-landare bikain asko daude pagoen artean. Neguan, pagoak hostorik gabe daudenean, askoz nabarmenago agertzen dira haginak.

Gipuzkoako armarrian ere ageri da hagina.

ZUHAITZ ESPEZIEAK



Fresno (Lizarra). *Fraxinus excelsior*

Árbol de unos 25 metros de talla.
Tronco recto, de color verde grisáceo. Yemas gruesas y negras.

Hojas compuestas de 9, 11 ó 13 folíolos sentados, alargados y agudos en su extremo. Follaje poco denso.

Fruto en sámara alargada, es decir, con una membrana alargada, aunque truncada en el extremo opuesto al lugar donde se encuentra la semilla.

Es un árbol resistente. Puede vivir 200 años.

Puede subir en altitud hasta los 1.500 m.

Es típico, entre otros lugares, en las majadas de pastores.

Suele ser podado cada dos años, pues su follaje sirve de forraje al ganado.

Sus ramas se colocan como las del espino, a los lados de las entradas de las casas, y caseríos, el día de San Juan (solsticio de verano) como protección para la casa.

Ha sido utilizado para la fabricación de la lanza (pertika), del carro (gurdi), además del roble.

Lizarra (Fresno). *Fraxinus excelsior*

Luzean 25 metro inguru hartzen ditu zuhaitz honek.

Geria zuzena du, berde arrea. Begi gizen eta beltzak ditu.

Hostoa konposatua da 9, 11 edo 13 hostoxka eseriak dituana, eta denak luzexka eta mutur zorrotzak. Hostotza sarea du.

Fruitua samera izeneko mintz luzexkaren barruan izaten du, nahiz eta hazia dagoneko aldean muturra moztua izan.

Zuhaitz gogorra da: 200 urte ere bizi daiteke.

Itsas mailatik 1.500 m-tik gora ere bizi ohi da lizarra.

Beste inon baino are ziurrago aurki genezake artzain saroi eta txabola inguruetan.

Bi urtetik behin inausi ohi dute

eta abereen janari gisa baliatzen dute lizarren hostotza.

Euskal Herrian begirune berezia izan zaio lizarri, urtero San Joan egunean (udako solstizioan) lizar-adarrak ipintzen dira oraindik ere baserri eta etxeetako ateburuaren alde banatan, elorriaren antzera, etxe-babesle gisa.

Besteak beste, gurdi-pertikak egiteko erabili izan da, haritzarekin batera.

ESPECIES ARBÓREAS



Aliso (Haltza). *Alnus glutinosa*

Árbol que puede pasar los 20 m de altura, de tronco derecho abundante en todas las vaguadas y lugares sombríos. Si se dan estas condiciones puede subir hasta más arriba de los 1.000 m de altitud.

Hojas caducas, simples, alternas, con pecíolo corto y limbo redondeado y a veces algo escotado en su extremo. Borde dentado. Permanecen verdes hasta su caída en otoño.

Amentos masculinos lagos, cilíndricos, pedunculados y colgantes. Los femeninos, ovoideos. El fruto con aspecto de pequeña piña oscura de poco más de un centímetro.

La madera es blanda: «Altzak ez du bihotzik», dice el cantar vasco. Al cortarla tiene un color blanco-amarillento, pero luego enrojece, por lo que se ha utilizado para imitar madera mucho mejores, tales como el ébano. También para la fabricación de bastidores de puertas y ventanas. Ha solido utilizarse también para fabricación de yugos, aunque es mucho más frecuente hacerlos con haya. También para marco de la «espordea» o «esia», instrumento que como hemos dicha al hablar del castaño sirve para desmenuzar la tierra floja de las heredades.

Se ha utilizado para leña, pues da mucho calor, aunque se consume muy pronto.

Haltza (Aliso). *Alnus glutinosa*

Haltza 20 m-tik gora haz daiteke.

Zuhaitz honek zuzena du enborra eta oso ugari sortu ohi da erreondo eta toki laiotz edo ospeletan.

Eta ingurua aproposa izan ezker, 1.000 m-ko garaieran eta gorago ere haz daiteke. Erorkorrak eta soilak ditu hostoak, alde banatan txandakatuak. Txorten laburra dute, orria borobil samarra eta muxarratua muturrean; bira osoan horzdunak dira eta udazkenean erori bitartean berde iraute dute.

Gerba arrak ditu zintzilika, luzexkak, borobilak eta txortendunak. Lore emeak, berriz, arrauzkarak. Fruituak pinaburuen itxurakoak dira ilun txikiak, zentimetro bat baino apur bat handiagoak.

Egur biguna du: «Haltzak ez du bihotzik» dio euskal abesti zaharrak. Ebakitzean, zuri horizta da haltzaren egurra, baina gerora gorritu egiten da; horregatik erabili izan dute egur onenen ordeko, ebanoaren ordeko, esate baterako. Ate eta leiho markoak egiteko erabili izan da. Inoiz, uztargintzan, baina horretan askoz sarriagotan erabili izan da pagoa.

Gaztainaren antzera, soroetan zokorrak xehatzeko tresnaren, «hesia» izenekoaren koadroa egiteko ere erabili izan da. Sutarako egur ona da, oso beroa baita, azkar erretzen bada ere.

ZUHAITZ ESPEZIEAK



ESPECIES ARBÓREAS



Abedul (Urkia).

Betula pendula. *Betula verrucosa*. *Betula alba*

Árbol que puede sobrepasar los 25 m de altura.

Tronco recto o algo flexuoso y follaje poco denso.

La corteza del árbol joven es rojo-parduzca.

Se hace blanca a los 5 ó 6 años.

En los ejemplares añosos, la parte baja se ennegrece.

Hojas caducas, simples, colgantes en general,

con pecíolo que llega a un tercio del limbo en longitud.

Limbo delgado, de 6 a 7 cm de longitud, agudo en su extremo, de borde dentado. Forma, entre triangular, y romboidal.

Flores (abril-mayo). Los amentos masculinos son cilíndricos,

sin pedúnculo y generalmente se presentan por parejas.

Los femeninos, también cilíndricos, con pedúnculo y aislados.

También los frutos (julio-agosto), son cilíndricos, de 2 a 3 cm de largo por 1 cm de ancho.

La madera del abedul es más blanda y más ligera

que la del roble. Se usa mucho para mangos de herramientas

y utensilios diversos. Así, por ejemplo, se hace con esta madera, el Kaiku del pastor, aunque suele utilizarse también el aliso.

También ha solido utilizarse el abedul

para fabricación de yugos, (uztarri),

aunque es más frecuente la utilización de madera de haya.

El abedul es un árbol muy resistente, de reproducción fácil, que gusta vivir a la luz. Puede vivir más de 100 años.

Es de gran valor ornamental. Debido a su corteza blanca, ha sido empleado en el país, como indicador de mojones para que visto el árbol desde lejos, pueda localizarse mejor el mojón, a veces cubierto por el brezo o el helecho.

Urkia (Abedul).

Betula pendula, *Betula verrucosa*, *Betula alba*

Urkia 25 m izatera iritsi daitekeen zuhaitza da. Zuzena du gerria edo enborra, baina apur bat bihurria; hostotza ez du oso trinkoa. Zuhaitzaren azala, gaztetan, gorritza izaten da; zuri bihurtzen da 5 6 urte dituenean; baina, ale zaharretan, beltz bihurtzen da behealdean.

Hosto galkor eta banakoak oro har zintzilik izaten ditu. Txortena da hostoaren hirutatik bat. Hostoak meheak, 6 7cm, muturrean zorrotzak, ertzetan horzdunak: triangulu eta erronbo tankerakoak.

Loreak apiriletik maiatzera bitartean izaten ditu. Lore arrak, zilindrikoak eta txortetik gabeak, normalean binaka izaten ditu; lore emeak, berriz, banaka, zilindrikoak eta txortendunak.

Fruituak ere zilindrikoak, 2 3 cm luzean eta 1mm zabaleran, uztailetik abuztura heltzen dira.

Urkiaren zura, haritzarena baino bigunagoa eta arinagoa da. Lanabesen kirtanak egiteko eta zenbait tresnatarako erabiltzen da. Adibidez, artzainek erabiltzen duten kaikua, normalean urkia izaten da, horretarako haltza egokiagoa izaten bada ere. Inoiz edo behin uztarriak ere egin izan dituzte, baina askoz gehiagotan pagoaz.

Zuhaitz iraunkorra da urkia eta erraz ugaritzen da, argia izanez gero.

Bizi, ehun urtetik gora bizi daiteke. Apaingarriak egiteko polita da, bere azal zuriagatik.

Mugarrien ondoan landatu izan dute askotan, azal zuria duenez, urrutira ikusi ahal izateko, horrela garo nahiz sasi-artean ezkutaturik legokeen mugarriaren azterna ematen baitu.

ZUHAITZ ESPEZIEAK



Urkia / Abedul

ESPECIES ARBÓREAS



Roble (Haritza).

Quercus robur, *Quercus pedunculata*

Esta especie de roble es la que alcanza mayor talla entre los diversos quercus que viven en Euskal Herria. Pueden alcanzar hasta 45 m de altura. Han sido, con mucho, la especie más extendida en la zona atlántica del país, aunque hoy se encuentra en casi total regresión, debido a la despiadada tala que ha sufrido desde hace varios siglos. Se incrementó especialmente a partir del siglo XVI, debido a carboneros que utilizaban también estos árboles para surtir a las ferrerías, a la construcción naval que servía principalmente a la armada y al aumento de cultivos de labranza.

El tronco, derecho, puede alcanzar grandes diámetros. La corteza suele estar generalmente cubierta de líquenes y musgos. Es bastante lisa hasta los 20 años, agrietándose después. La capa es amplia e irregular, bastante abierta, por lo que deja pasar bastante luz. De ahí que los robledales sean más claros que los hayedos, y faciliten la existencia de un sotobosque de arbustos y hierbas, mucho más rico que los hayedos.

Las hojas, caducas, son simples, lobuladas, lampiñas en sus dos caras, de pecíolo muy corto.

El limbo, suele tener de 5-12 cm de largo por 4-8 de ancho. Su disposición en las ramas es alterna.

Las flores femeninas (abril-mayo), y por tanto las bellotas (setiembre-octubre), se encuentran en grupos de 2 ó 3, sentadas lateralmente sobre un largo pedúnculo. Es éste quien da nombre a la especie (*Quercus pedunculata*).

Rara vez se encuentra por encima de los 800 m de altitud.

La madera de roble es muy buena. Aún se utiliza hoy en la construcción naval y desde luego en la construcción de muebles y vigas. En las catedrales góticas centroeuropeas se conservan perfectamente las maderas de roble.

También se ha utilizado el roble para, hacer la cama del *gurdi*, las ruedas y la lanza o «pertika».

El eje solía ser generalmente de haya. La leña da un carbón de gran potencia calorífica.

Por fin la bellota constituye un buen pienso para el ganado de cerda.

Es un árbol longevo, pudiendo llegar en buenas condiciones a los 1.500 años.

Desde el punto de vista estético, el robledal es uno de los bosques más bellos del país, por lo que posee un alto valor recreativo y social, que no suele considerarse en las deshumanizadas tablas de los economistas de vista baja, que solo ven en los bosques y arboledas de madera, metros cúbicos, mercados y velocidades de crecimiento.

La plaga denominada «blanco del roble» está terminando con los pocos robledales que quedaban en el país.

ZUHAITZ ESPEZIEAK

**Haritza (Roble).***Quercus robur, Quercus pedunculata*

Euskal Herrian diren hainbat haritz espezieetatik haxe da handien egiten dena, 45 m izateraino hazi ohi da.

Haritza izan da, zalantzarik gabe, Euskal Herriko Kantauriko isurialdean ugarien izan den zuhaitz espeziea; gaur, ordea, atzerakada handia darama, batez ere azken mende hauetan egin diren baso ustiapen izugarrien erruz. Alabaina, era berezian ugaritu zen XVI. mendean, ikazkinek burdinolak hornitzeko zuhaitzak behar zituztelako; baina, batez ere, armada zerbitzatzen zuen ontzigintzak behar zituen ontziak egiteko haritza preziatua zelako ere; bestetik, nekazaritza ugaritzean, tresneria egiteko behar zutelako.

Enborrez zuzena da gehienetan, lodiera handia hartzera iritsi izan da. Goroldioz eta likenez estalirik eduki ohi duen azala leun samarra izaten du 20 urte bitartean, baina gerora zartatu egiten zaio. Zabal samarra izaten du adaburua, ireki samarra edo sarea, argiari sartzen uzten egokia. Hain zuzen ere, pagadiak horregatik dira hariztiak baino argitsuago, eta horien artean belarrak eta zuhaixkak ere pagadietan baino ugariago.

Hosto erorkorrak ditu, soilak, gingildunak, bi aldeetatik dira bizar gabeak, txorten oso laburrekoak. Hostoa bera 5-12 cm izaten da luzeran eta 4-8 cm zabaleran.

Adarraren albo banatan txandakatuak izaten ditu.

Apirilean eta maiatzean loratzen da emea, hortaz, ezkurra iraila edo urrian izaten du mordotan, binaka nahiz hironaka, txorten luzetik zintzilik.

Hortik datorrena da haritz espezie honen deitura, «txortenduna» edo «pedunculata».

Itsas mailatik 800 m baino garaiera handiagotan nekez ikus daiteke.

Oso ona da haritzaren egurra. Oraindik ere erabiltzen dute itsas ontzigintzan, eta zer esanik ez altzarigintzan eta habeak egiten. Europa erdialdean zehar, katedral gotikoetan ederki irauten du haritz zurak. Erruz erabili izan da nekazaritzan, batez ere, tresna hauetan: gurdien egiturak, gurpilak eta pertikak egiten; ardatza, ordea, gehienetan pagoa izaten zen.

Haritza oso egur beroa da eta berotasun handiko ikatza egin daiteke.

Azkenik, haritzak ematen duen ezkurra, txerri eta basurdeentzat oso janari ona da.

Luzez bizi daiteke haritza, gaitziz gabe iritsi baitaiteke 1.500 urtetara.

Paisaian, berriz, Euskal Herriko zuhaiztirik ederrenetakoa da hariztia: gizakiarentzat atsedean eta aisialdirako egokia delako, epe laburreko ekoizleek aintzakotzat hartzen ez badu ere.

Euskal Herrian ditugun hariztiak galtzen doaz, haritzaren gaitz zuriak jota.

ESPECIES ARBÓREAS



Castaño (Gaztaina). *Castanea sativa*

Árbol de gran talla que puede superar los 30 metros de altura.

Porte majestuoso, con tronco derecho, corto y grueso en los ejemplares injertados.

La corteza es lisa en los ejemplares jóvenes y se agrieta en los viejos. En buenas condiciones pueden dar árboles de gran diámetro. Se han conocido ejemplares de esta especie, que superan los 10 m de diámetro.

Las hojas caducas, son simples, de pecíolo corto y limbo alargado, terminando en punta aguda.

El limbo puede tener de 15 a 20 cm de longitud por 5 de ancho. El borde es aserrado.

La disposición en el tallo es alterna. Los armentos o conjuntos de flores masculinas son erectos (mayo-junio).

Las flores femeninas envueltas por una cúpula espinosa que luego se «eriza» con largas espinas (octubre-noviembre).

La madera es buena y ha sido muy utilizada en carpintería y ebanistería. También se utilizaba para la fabricación de herradas («suela o perra»), así como sus flejes, en cestería y varas de la «espordea o esta», instrumento para desmenuzar tierra floja en las heredades.

Los castaños del país han desaparecido casi por completo, debido a la enfermedad más grave que les aqueja: la tinta;

Se trata de un hongo microscópico detectado en Europa, por vez primera en Italia, hacia mediados del siglo pasado.

Pronto llegó a los castañares de la parte continental del País Vasco, de donde pasó a la parte peninsular, hacia 1870.

Gaztaina (Castaño). *Castanea sativa*

Enbor handiko zuhaitza da, 30 m ere hazi daiteke.

Egitura ederra du, gerri zuzena, laburra eta sendoa, txertatua denean. Azal leuna du landareak gaztea denean, pitzatu egin ohi zaio, ordea, zahartzean.

Baldintza onetan, bederen, loditasun handiko zuhaitza izan daiteke. Espezie honetan ezagutu dira 10 m-ko diametroa zuten zuhaitzak

Gaztainaren hostoak erorkorrak dira, banakakoak, txorten laburrekoak, luzexkak izanik ere mutur zorrotza dute, 15-20 cm luze eta 5 cm zabal. Ertzak horzdunak dituzte, adaxkaren albo banatan txandakatuta.

Lore talde arrak luzexkak eta tenteak dira eta maiatzean eta ekainean loratzen dira.

Lore emeak, berriz, morkotsak, gero gogortzen diren arantza zorrotzeko kupuletan bildurik egoten dira, urrian eta azaroan heltzen dira.

Gaztaina zura ona da eta asko erabili izan dute arotz lanean eta altzarigintzan. Suilak egiteko ere erabiltzen zuten, baita saskigintzan eta soroko lurra xehatzeko «espordea» edo «hesia» egiten ere.

Gaztainadiak eta gaztainondoak ere ia zeharo galdu dira Euskal Herrian, tinta izeneko gaitz txar batek jota.

Mikroskopioz baizik ikusi ezin den onddo hori Europan lehenengoz Italian agertu zen, joan den mendearen erdi aldera.

Berehala heldu zen Ipar Euskal Herriko gaztainadietara, eta hemendik penintsula 1870. urte aldera.

ZUHAITZ ESPEZIEAK



ESPECIES ARBÓREAS



Plátano (Platanoa). *Platanus*

El plátano es un elemento corpulento común en paseos, parques y bordes de carreteras. El ritidoma o capa externa de su corteza verde se desprende en placas, que da entonces un fondo amarillento que va reverdeciendo poco a poco.

Platanoa (Plátano). *Platanus*


Gorputz handikoa da platanoa, ibilbideetan, parkeetan eta bidertzetan ikusi ohi den zuhaitza. Gaietako azala zatika galtzen du eta, orduan, azpitik agertzen den gerri horizta berdetuz joaten zaio.

Alerce (Alertzea). *Larix leptolepis*

El alerce es una especie forestal introducida en el País en las últimas décadas. Es la única conífera de nuestras montañas, que pierde la acícula (hoja) en invierno.

Alertzea (Alerce). *Larix leptolepis*

Joan den mendearen azken aldera sartu zen basoko espezie hau Euskal Herrian. Gure mendietako konifero bakarra da, neguan azikula edo hostoa galdu egiten du.



ZUHAITZ ESPEZIEAK



Manzano (Sagarrondoa). *Malus communis*

El manzano es el árbol frutal más extendido en las regiones húmedas del País Vasco.

Su importancia fue mucho mayor en épocas anteriores, causando la admiración de los viajeros que nos visitaban.

Es un árbol humilde, muy ramificado, con ramas muy extendidas.

Las hojas son ovaladas, dentadas, con nervios bien diferenciados.

Las flores blancas rosadas salen en primavera, antes que las hojas, por lo que en esta época los manzanales destacan claramente sobre los yerbales en los que suelen estar plantados.

Hoy los manzanales del país están muy poco atendidos.

Son un residuo abandonado de su antiguo esplendor.

El muérdago que los invade es buena señal de este abandono.

El muérdago es una planta semiparásita que crece sobre diversos árboles. Extienden o hunden sus haustorios («raíces» chupadoras) en el leño. Las hojas salen de dos en dos, en forma dicotómica. Los frutos son drupáceos.

Sagarrondoa (Manzano). *Malus communis*

Euskal Herriko lurralde hezetan dugun f ruta-arbolarik ugarien eta hedatuena sagarrondoa da. Antzina-antzinako garaietan honen garrantzia askoz handiagoa izan zen, kanpotar bidaztiak harritzera inokoa.

Zuhaitz apala da sagarrondoa, adaburu zabala eta adar asko dituen.

Hostoak arrauzkara horzdunak ditu eta zainak agerian nabarmendurik.

Lore zuri gorritzak udaberrian agertzen dira, hostoa baino lehen. Horretxegatik, hain zuzen ere, izaten dira sagarrondoak nabarmen belardietan, zuri eta apain.

Egun sagastiak utziegiak daude Euskal Herrian, behar bezala zaindu gabeak. Lehen izan zirenen itzal edo errainu besterik ez dira.

Ederki adierazten dute utzikeria hori sagarrondoetako mihurek:

bestearen bizkar indartzen den landare bizkarroia. Zuhaitzaren adarretan itsasten ditu mihurak bere erro zurrupatzaileak; hostoak binakakoak ditu eta fruituak likatsuak.

Mediterranean eremuko landaredia

Paisaje vegetal del área Mediterránea



Arte / Encina (*Quercus ilex*)

Al viajero que de los esquilmados valles y montes guipuzcoanos y vizcaínos pasa a las sierras alavesas o navarras le llaman la atención dos cosas:

1. La gran riqueza forestal de especies autóctonas, a pesar de que también muchos de estos bosques han sido inadecuadamente explotados. Para ver esta riqueza, basta comparar el Aralar guipuzcoano con el navarro y pasearse por los hayedos de Baraibar.
2. La gran variedad forestal, debida sin duda a la gran variedad de influencias oceánicas y mediterráneas que se entrelazan o dominan según los casos, dando origen a ecosistemas muy distintos.

Basta contemplar:

- los pinares del pino carrasco (*Pinus halepensis*) en puntos de las Bardenas,
- los carrascales (*Quercus ilex*) de la ladera Sur de la Sierra Cantabria,
- los quejigales (*Quercus faginea*) de las proximidades de Peñacerrada-Urizaharra o
- los hayedos (*Fagus sylvatica*) de la cara Norte de la misma sierra.

Describiremos, los principales ecosistemas que pueden verse con facilidad en este dominio. Pero en vez de guiarnos por el ecosistema mismo, nos guiaremos por la zona geográfica, describiendo sus ecosistemas principales. Al viajar o recorrer montañas, no vamos personalmente al marojal de tal sitio o al carrascal de tal otro, sino que vamos a la Rioja, a Urbasa o a la Llanada Alavesa. El botánico o el muy aficionado a esta amable disciplina puede recurrir a otras obras que sin duda alguna conoce.

Paisajes vegetales

1. La Ribera

Esta es la zona más seca de Euskal Herria, con una pluviosidad inferior a 500 mm por año. Quien la recorre en plena canícula, puede experimentar vivamente el sol abrasador. El frecuente viento seco colabora a una mayor evapotranspiración. Los abundantes terrenos yesíferos, residuo del lago salado existente durante el Terciario, acentúan aún más la aridez.

La respuesta vegetal a estas condiciones geoclimáticas es la **estepa**. Esta estepización de la Ribera se ha visto acusada por la acción que el hombre ha ejercido mediante el pastoreo y roturación abusivos. Si prescindimos en las zonas a las que llega el regadío moderno, los únicos elementos botánicos que nos recuerdan el dominio oceánico son las arboledas ribereñas, con chopos y álamos, que acompañan al Ebro, Ega, Arga, Aragón, y otros ríos menores.

Bizkaia eta Gipuzkoako mendi-tontor, haran edo ibar gorri zein soilduetatik, Araba eta Nafarroako mendilerroetara joaten den ibiltariari bi gauza gertatzen zaizkio deigarri:

1. Batetik, bertako zuhaitz-landare desberdinen aberastasuna, baso horietako askotan desegokiro ustiatu badira ere. Aberastasun horretaz jabetzeko, aski da Gipuzkoa aldeko Aralar Nafarroa aldeko Aralarrekin alderatzea eta Baraibarko pagadietan zehar ibiltzea.
2. Bestetik, zuhaitz barietatea ugaria, Kantauriko eta Mediterraneoko eragin desberdin asko nahasten direla-eta, ekosistema oso desberdinak sortarazten dute batean eta bestean.

Honako zuhaitzi hauek ikusi besterik ez dago:

- aleppo pinuak (*Pinus Halepensis*) Bardeetako zenbait gunetan,
- artadiak (*Quercus ilex*) Kantabriako mendilerroaren hegoaldeko hegalean,
- erkametz sailak (*Quercus faginea*) Urizaharrako inguruetan eta
- pagadiak (*Fagus sylvatica*) mendilerro beraren iparraldeko aurpegian.

Mediterraneoko isurialde horretako ekosistema nagusiak azalduko ditugu, hemen erraz ikus daitezkeenak. Baina, ekosistema horiei jarraitu ordez, eremu geografikoa izango da gure jarraibide, eremu bakoitzeko ekosistema nagusiak izendatzerakoan. Izan ere, gure mendietara joan nahi dugunean, ez gara halako pinuditara edo halako pagaditara nahiz artaditara joaten, baizik eta Urbasa, Errioxa edo Arabako Lautadara joko dugu. Beti ere, botanikariek nahiz diziplina atsegin honen zaleek jo dezake ezagutzen dituzten beste liburu batzuetara.

Landarediak

1. Erribera

Euskal Herriko lurralderik idorren edo lehorrena da, urtean ez du 500 mm baino euri gehiago egiten. Lurralde hori udaldi minenean aldenik alde igaro duen edonork nabarituko du eguzkiaren sargori errea. Sarritako aire lehorrak ebapotranspirazioa areagotu egiten du. Tertiarioko aintzira gaziaren hondar eta lur igeltsudunek are larriagotzen dute bertako idortasuna.

Hala, landarediak egoera geoklimatiko hauei ematen dien erantzuna **estepa** da. Erriberaren estepizatze horretan zirikusia izan du gizakiak, bai artzaintzaren bidez, bai gehiegizko lurgorritzearen ondorioz. Ureztatze modernoak hartzen dituan lurak alde batera uzten baditugu, Kantauriko isurialdeko landaretza gogorazten diguten lekuko bakarrak ezkiak eta makalak dira, Ebro, Ega, Arga, Aragoi eta beste ibai txikiagoen ertzetako lagunak.

Pino Carrasco

Fuera de estos árboles el único que domina el paisaje en algunas zonas es el **pino carrasco** (*Pinus halepensis*). Este pino de talla media (raros ejemplares superan los 20 m) posee un tronco generalmente desnudo de ramas, de curso irregular y copa algo aparasolada. No debe confundirse con el verdadero pino aparasolado (*Pinus pinea*) típico del valle del Duero, de la costa catalana o de Andalucía, que puede alcanzar hasta 30 m de altura.

Las acículas del pino carrasco, de 6 a 12 cm de longitud, son finas y se presentan por parejas.

Las piñas antes de abrirse son alargadas, de 6 a 12 cm. Permanecen en el árbol varios años después de abiertas y de haber echado el piñón. Por eso se ven abundantes piñas en la copa.

Los pinares más importantes de la Ribera se encuentran

- en el vedado de Egúarás al NNE de Arguedas
- y en la Plana de la Negra al Este de Tudela, en su límite con Zaragoza.

Coscoja

A este pino carrasco suele acompañar la **coscoja** (*Quercus coccifera*), único *Quercus* que vive hoy en la región. Se trata de una mata o arbusto, tal como hemos indicado más arriba, que cuando se encuentra en abundancia, cosa que ocurre en muchas lomas desarboladas, hace a éstas impenetrables. Le acompañan:

- el enebro (*Juniperus oxycedrus*) y
- el escambrón (*Rhamnus lycioides*), arbusto de fuertes espinas.

Cuando se aclara el coscojar dominan las labiadas aromáticas tales como:

- el romero
- el tomillo
- el esparto, gramínea basta de hoja enrollada.

Los bosques galería, compañeros de los cursos de agua, que antes hemos mencionado, no son exclusivos de esta zona, ni mucho menos, ya que los podemos ver en todos los valles, en Navarra Media, en la Rioja o en la Llanada Alavesa, pero contrastan aquí más que en los otros lugares citados, precisamente por la aridez de la región. Estos bosques ribereños, compuestos de

- chopos (*Populus nigra*)
- álamos (*Populus alba*),

suelen contener diversos sauces y hasta fresnos y olmos.

En zonas más occidentales, aguas arriba del Ebro, entrando ya en La Rioja o hacia el Norte de la Navarra Media y en los valles alaveses, algunas de estas arboledas se transforman en alisedas donde domina el aliso (*Alnus glutinosa*).

Le acompaña una serie amplia de arbustos entre los que se encuentran distintos

- sauces,
- avellanos,
- saucos,
- sanguinos, etc.

Aleppo pinua

Zuhaitz horiek alde batera utzita, paisaia nagusi diren beste zuhaitzak **aleppo pinuak** dira (*Pinus Halepensis*). Garaieraz erdi mailakoa da, bakanak dira 20 metrotik gora hazten direnak; adar gabeko gerri soila dute, zenbaitetan okerra, eta mutur ginbaildun zapala. Espezie hau, 30 m haz daitekeena, ez da nahastu behar Duero ibaiaren arroan, Kataluniako itsasertzean eta Andaluzian hain bereziak diren pinu ginbaildunekin (*Pinus pinea*).

Aleppo pinuaren azikulak meheak eta binakakoak izaten dira, eta 6-12 cm neurtzen dute.

Pinaburuak ireki aurretik luzexkak dira, 6-12 cm, eta zuhaitzean irauten dute zenbait urtez, ireki eta hazia jalki ondoren. Horregatik izaten dira hain ugari pinaburuak adaburuetan.

- Erriberako pinudirik nagusienak, Arguedastik Iparraldera dagoen Egúaratseko debekuko barrutian daude,
- eta Tuteratik Zaragozako mugetan dagoen «Plana de la Negra» deritzon sailetan.

Abaritza

Abaritza (*Quercus coccifera*) izaten du lagun aleppo pinuak, lurralde horretan egun bizirik dirauen *Quercus* espezie bakarra, hain zuzen ere. Zuhaitza edo sastraka da, lehen esan dugunez, eta ugari dagoen tokietan, izan ere zuhaitzik gabeko mendi-bizkarretan ohikoa da, sartu ezinezko sasi itxia bihurtzen da. Lagun izaten ditu:

- Ipurua (*Juniperus oxycedrus*) eta
- Ena arrunta (Espino negro) (*Rhamnus lycioides*), biak dituzte arantza gogor-gogorrak.

Abaritz sailak soilten direnean, ezpaindun usaintsuak nagusitzen dira, besteak beste:

- erromeroa,
- ezkaia
- espartua hosto kiribilduzko gramineo zakar bat.

Baso lerroak. Gorago aipatu ditugun zuhaitz lerroak, ibaien bide-lagun nahastezinak, ez dira lurralde horretakoak bakarrik, ez inola ere. Nafarroako Erdialdean, Errioxan eta Lautada Arabarrean diren ibar guztietan dira horrelakoak. Erriberan

- makal beltzak (*Populus nigra*)
- makal zuriak (*Populus alba*)

dituen baso horiek ondoan izaten dituzte hainbat sahats, lizar eta zumar.

Mendebalderago, berriz, Ebro ibaian gorantz joanez, Errioxan nahiz Nafarroako Erdialdetik Iparrerago nahiz Arabako ibarretan zuhaitzi horietako batzuk haltzadi bilakatzen dira beste ezer baino ugariago baitira haltzak (*Alnus glutinosa*).

Halaber, haltzari lagun egiten hor ditugu zuhaitza sail zabalak, hala nola: hainbat eratako

- sahatsak,
- hurritzak,
- intsusak,
- karraskilak eta beste.

Lagunas

Por fin en la Ribera hemos de mencionar las lagunas, balsas o charcas permanentes, muchas de ellas de naturaleza endorreica, residuos del lago Terciario antes citado. Se trata de depresiones topográficas a las que afluyen las aguas circundantes. Las aguas de estas lagunas suelen ser más o menos saladas, debido a que las áridas tierras del entorno lo son ya que la evaporación hace que se concentre la sal en el agua.

Pueden verse ese tipo de lagunas al S y W de Tudela (Balsas de Cardete, Purquer, Valpertuna, etc.). Están dominadas por:

- charas,
- carrizos,
- espadañas y
- juncos, dispuestos en círculos concéntricos.

El círculo o cinturón exterior suele estar compuesto por plantas halófilas, adaptadas a suelos más salinos.

La agricultura propia de la zona son

- los cereales, a los que se suman
- los policultivos de regadío,
- el viñedo y en menor cantidad
- el olivar.

2. La Rioja Alavesa y sierras de Toloño-Cantabria-Codes

Una visión de la Rioja, de cualquier punto de la Sierra de Cantabria o de cualquier altozano sito en la misma penillanura, nos muestra

unas tierras dedicadas, ante todo, al cultivo de los cereales y la vid.

Resaltan también las alisedas y choperas alineadas en las riberas de los ríos, especialmente a lo largo del Ebro.

Los olivares se extienden sobre todo entre Elvillar y el Ebro.

Fuera de esto, las tierras bajas apenas cuentan con:

- algún carrascal (*Quercus ilex*),
- algún coscojar (*Quercus coccifera*),
- alguna mancha de pino carrasco (*Pinus halepensis*)
- matorrales en que abundan el romero y el tomillo.

Carrascal

El paisaje vegetal cambia al aproximarnos desde las tierras bajas a las estribaciones meridionales de la Sierra de Cantabria y Toloño. Aquí se impone el carrascal, que forma una mancha casi continua desde el extremo occidental hasta el oriental de La Rioja.

En algún punto, como ocurre al Norte de Cripán, esta mancha está interrumpida por quejigales (*Quercus faginea*).

Estos carrascales continúan al Sur de la Sierra de Codes hacia Estella.

Aintzirak

Erriberan aipatzekoak ditugu aintzirak, zingirak eta putzu iraunkorrak, haietako asko jatorri endorreikoak, lehen aipatutako Tertziarioko aintziraren arrasto direnak. Lurraren sakonuneak dira; han ingurutako urak biltzen dira. Ur horiek gaziak izaten dira, batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago, ingurune horretan lurrak gaziak direnez, lurrinketaren ondorioz gelditzen den gatza uretan kontzentratzen baita.

Era horretako putzuak Tuteratik hegoaldera eta mendebaldera ikus ditzakegu, adibidez Kardete, Purker, Balpertunako eta abarretako putzu batzuk.

Ondoan nagusi dituzte, borobil zentrokideetan:

- estrepak,
- lezkak,
- ezpata-belarrak etab.

Kanpoko borobila zabalena, landare halofilo osatua egoten da, lur gazietara egokituriko landarez alegia.

Halako lurraldeetan berezkoenak laboreak izaten dira,

- polilaborantza ureztatuarekin batera;
- azkenik, mahastiak
- eta olibadiak kopuru txikiagoan.

2. Arabar Errioxa eta Toloño, Kantabria eta Kodesko mendilerroak

Kantabriako mendilerrotik nahiz beste edozein penillautadetako muino edo mendixketatik begiratuta Errioxaren ikuspegi argi bat ematen digu,

batez ere laboreak eta mahastiak lantzen diren lurraldearena.

Haltzadiak eta makaldiak ere ageri dira, ibaiertzen lerroan jarrita, batez ere Ebro ibaiaren ibilbidean.

Bilaren eta Ebroren artean hedatzen dira bereziki olibadiak.

Ordeka horietan ez dago ia beste zuhaitzik, hauek baizik:

- artadiak (*Quercus ilex*),
- abaritzak (*Quercus coccifera*)
- aleppo pinuak (*Pinus halepensis*), han-hemenka gunebatzuk eta
- erromeroa eta ezkaik ugari diren sastrakak.

Karraska

Zuhaizti eta landarediaren ikuspegia zeharo bestelakoa da Kantabria eta Toloño mendilerroen hegoaldeko hegalekara hurbiltzean. Alde horietan karraska da nagusi, Errioxako mendebaldeenetik ekialdekoraino ia etengabe ko orbanetan.

Une batzuetan, Kripandik iparrerago, esate baterako, erkametz sail batzuk ageri dira (*Quercus faginea*).

Baina karraska-sail horiek Kodes mendilerroaren hegoaldean Lizarrarantz jarraitzen dute.

Al carrascal le acompañan una serie de arbustos y matas, como:

- el boj,
- los enebros,
- la coscoja,
- el romero,
- el tomillo,
- la gayuba.

Este tipo de bosque es el que cubriría toda La Rioja, de no intervenir la mano del hombre.

El paisaje vegetal cambia bruscamente al coronar los puertos o cimas de las sierras que mencionamos y dirigirnos a sus laderas septentrionales. De pronto nos encontramos con amplios hayedos que nos recuerdan a los oceánicos, aunque veremos que muestran diferencias. Una estancia más detenida en La Rioja y un poco de espíritu de observación puede explicarnos claramente este cambio. Es frecuente observar desde Laguardia o cualquier pueblo riojano, cómo muchos días las nubes procedentes del Norte asoman amenazadoras por encima del cresterío de la Sierra de Cantabria sin pasar hacia el Sur. La cordillera y el ambiente atmosférico seco de la Rioja las contienen, pero esas nubes prestan a la cara norte de la sierra una humedad que permite el buen desarrollo del hayedo.

De todas formas si nos fijamos en el sotobosque del mismo, observaremos que en vez de estar compuesto de acebos, arces y espinos, aquí domina el boj.

3. Montes de Vitoria- -Entzia-Urbasa-Andia

Esta larga cordillera, que atraviesa Álava y la parte occidental de Navarra desde La Puebla de Arganzón hasta las proximidades de Pamplona, es muy frecuentada por excursionistas alaveses, guipuzcoanos y navarros. Por eso la escogemos como un lugar típico e importante, digno de ser descrito.

Carrascal

Las laderas meridionales de la zona occidental de la cordillera, es decir, las que van desde el Zadorra, aguas arriba de la Puebla de Arganzón, hasta la cuenca alta del río Ayuda, entre Oquina y Saseta, nos muestran de nuevo un carrascal (*Quercus ilex rotundifolia*) análogo al que hemos visto en la cara sur de Cantabria, aunque aquí no domina el boj entre los arbustos y, a cambio, está presente el quejigo en las zonas más húmedas. Este mismo ecosistema continúa al otro lado del Zadorra, por la cara sur de la sierra de Tuyo, Canto Blanco y Olvedo hasta Valdegovía, y en la misma cara Sur y en la Oeste de la sierra de Arcamo.

Quejigal

En cambio, hacia el Este, antes de llegar al curso alto del Ayuda, arriba mencionado, da paso a un extenso quejigal (*Quercus faginea*). Este quejigal, con mayor o menor desarrollo y algunas interrupciones continúa

Karrasken artean badira hainbat zuhaixka eta sastraka, hona hemen:

- ezipelak,
- ipuruak,
- abaritzak,
- erromeroak,
- ezkaia eta
- azeri-mahats izenekoak.

Horrelakoxe zuhaizti itxiak estaliko zukeen Errioxa osoa, gizakiaren eskuak aldaketarik eragin ez balu.

Landaredia erabat aldatzen da hemen, mendateak eta mendilerroen gainak igo eta iparralderago dauden mendi maldetara joan ahala. Berandu baino lehen, Kantauri aldekoak gogorazten dizkiguten pagadi handiak aurkituko ditugu, nahiz eta desberdintasunik badela konturatu. Errioxan egonaldi luzexeago bat egiteak eta gauzak arretaz begiztatzeak, ederki adieraziko dizkigu aldaketaren nondik norakoak. Biasteritik nahiz Errioxako beste edozein herritatik inoiz ikus daitezke hodeiak iparretik ilun eta euritsu agertzen direla Kantabria mendilerroaren gailurreriatik, baina hegoaldera ez direla igarotzen. Mendilerroak berak batetik eta Errioxako klima lehorrak bestetik, eutsi egiten diete hodeiei; baina mendilerroaren ipar-hegaleko pagadiak garatzeko behar duten hezetasuna ematen diete hodei horiek.

Nolanahi ere, basopea aztertzen hasten bagara, berriz, laster konturatuko gara ezipelak nagusi direla, gorosti, astigar eta elorrien ordez.

3. Gasteizko Mendiak- -Entzia-Urbasa-Andia

Argantzun herritik hasi eta ia Iruñea bitartean, arabar, giputz eta nafar mendizale ibiltari asko ibiltzen dira Araba osoa eta Nafarroako mendebalde zeharkatzen dituen mendilerro luze horretan barrena. Hara zergatik aukeratzeko dugun lurralde jator eta jakingarritzat, deskribapena egiterakoan.

Karraska

Mendilerroaren mendebaldeko hegal hegoaldekoenak, hau da, Argantzundik hasi eta Zadorra ibaia gora, Ayuda ibaiaren goiko arroa arte, Okina eta Saseta herrien artean, karraska sail bat (*Quercus ilex rotundifolia*) agertuko digu, Kantabria mendilerroaren hego-aurpegian dagoen antzekoa; baina hemen ezipela ez da nagusi sastraka artean, bere ordez, toki bustiagoetan erkametzak da ugariena. Ecosistema horrek berak jarraitzen du Zadorra ibaiaren bestaldean ere, Tuyo, Canto Blanco eta Olvedo mendilerroaren hegoaldeko hegaletik aurrera Gaubea bitartean, Hegoaldeko hegal berean eta Karkamu mendilerroaren mendebaldean.

Erkamezti

Hegoaldera, aldiz, lehen aipaturiko Ayudaren goi-arroara heldu bitartean, erkamezti zabal bat hedatzen da (*Quercus faginea*). Eta erkamezti horrek, garapena gorabehera, ekialderantz jarraitzen du, zenbaitetan sareago eta beste batzuetan itxiago,

- hacia Oriente, al sur del puerto de Azazeta, en Vírjala Mayor, Leorza y Arenaza.

Existen también en la cara sur del valle de Arana o si se quiere extremo noroeste de la sierra de Santiago de Lokiz.

Estos quejigales muestran ya un estado atmosférico más húmedo que los carrascales.

Para pasar de un carrascal a un hayedo hay que coronar un cresterío y llegar a la cara norte de una cordillera. Para pasar de un quejigal a un hayedo, basta seguir subiendo por la misma ladera. Puede comprobarse esto, subiendo desde Alda o Ullibarri-Arana hacia Santiago de Lokiz, por tomar un ejemplo de uno de los lugares que acabamos de mencionar.

Acompañan en estos bosques al quejigo,

- los arces,
- el enebro (*Juniperus communis*)
- y el brezo (*Erica vagans*), signo también de mayor humedad.
- En las zonas más áridas, también el boj.

Encimeras

Si de las laderas meridionales de la larga serie de sierras, que describimos, subimos a sus cumbres y amplias encimeras, nos encontramos con extensos hayedos que van desde las cimas más próximas al Zadorra hasta las más próximas al Arakil, cerca ya de Pamplona.

Estos hayedos reciben más humedad que los que hemos visto en Toloño y Cantabria. Por eso, entre el cortejo de leñosas acompañantes, sustituyen al boj:

- el arce común,
- el acebo,
- el tejo
- los majuelos o espinos (*Crataegus monogyna*).

Dentro del dominio mediterráneo que aquí tratamos, estos hayedos se extienden también, si bien en mucho menor cantidad,

- por la sierra de Arkamo y Lalastra hacia el Oeste
- y en islotes por las sierras de Alaitz, Izko y Leire hacia el Este.
- Pero los grandes hayedos del país se encuentran, además del citado de Urbasa, en Aralar y en el Pirineo navarro (Aezkoa, Irati, etc).

En general la vegetación que crece bajo las hayas es mucho más pobre que la que crece bajo los robledales y, por supuesto, que la que crece bajo los carrascales y encinares. Ello se debe a la intensa sombra que las frondosas hayas proyectan, la cual hace que muchas zonas de estos hayedos, aparte de los musgos y líquenes que se apoyan en los tocones y troncos, no contengan más que la hojarasca caída de las mismas hayas.

Por debajo de los hayedos, en la cara Norte de los montes de Vitoria-Gasteiz existen importantes quejigales. A veces entre éstos y los hayedos se interponen robledales. En cambio, en las laderas septentrionales de las sierras de Iturrieta, Entzia y Urbasa, estos quejigales se enrarecen y el hayedo conecta en muchos puntos directamente con los cultivos.

- Azazeta mendatearen hegoalderantz, Birgaragoien, Elortzan eta Areatzan.

Arana haranaren hegoaldera, Lozkizko Santiago mendilerroaren ipar-ekialdeko muturrean ere badira erkameztiak.

Horietan giro bustia areagotu egiten da karraskadietan baino gehiago.

Karraskadietatik pagadietara aldatzeko, gailurreria garaitu behar da eta mendilerroaz iparrera iritsi. Erkamezti batetik pagadi batera igarotzeko, berriz, aski da mendi-hegal beretik gorantz jarraitzea. Hori horrela dela ikusteko, Aldatik nahiz Uribarri-Aranatik Lokiz aldera igotzen jarraitu besterik ez dago, aipaturiko lurralde berean adibide garbi bat ipintzearen.

Baso horietan erkametzen lagun ditugu:

- astigarrek,
- ipuruak (*Juniperus communis*)
- eta txilarrak (*Frica vagaras*), hauek berak ere hezetasun handiagoaren seinale dira.
- Eta eremu lehorragoetan ezpelak ere badira.

Gainetako pagadiak.

Deskribatzen ari garen mendilerro lerrokada luzeen hegoaldeko hegaletatik gailur eta gain zabaletara igotzen bagara, pagadi handi bikainak aurkituko ditugu, hasi Zadorra ibaiaren gertueneko gailurretatik eta Arakil ibaitik hurbilen daudenetara, ia Iruñera bertaraino.

Pagadi horiek Toloño eta Cantabria mendilerroko pagadiak baino hezetasun oparoagoa dute. Horregatik, hain zuzen ere, ezpelaren ordeztu, pagoen lagun egurtsuen artean aurkituko ditugu:

- astigarra,
- gorostia,
- hagina eta
- elorri zuriak (*Crataegus monogyna*).

Hemen azaltzen ari garen Mediterraneoko isurialdean, askoz urriago badira ere, baditugu

- mendebaldera pagadiak Arkamo eta Lalastra mendilerroetan,
- eta mendebaldera zenbait gunetan Alaitz, Izko eta Leire mendilerroetan.
- Hala ere, Euskal Herriko pagadi handiak, aipatu dugun Urbasakoez gain, Aralarren eta Nafarroako Pirinioetan: Aezkoan, Iratin etab.

Orokorrean, pagopetan sortzen den landaredia askoz ahulagoa eta urriagoa da, hariztietan sortzen dena baino, eta, are ahulagoa karraskadi eta artadietan ageri direnak baino askoz. Bistakoa da eta ulerterraza zergatia: pagoa hostozabalen itzala eragozpen da, eta, beraz, pago enborretan itsatsitako goroldioa eta likenak izan ezik, pagoen orbela besterik ez da izaten pagadietan.

Gasteizko mendien iparreko hegalean badira erkameztiak ere pagadiak baino beherago. Baina, zenbaitetan hauen eta pagadien artean, hariztiak ere izaten dira. Aldiz, Iturrieta, Entzia eta Urbasa mendilerroen iparraldeko hegaletan erkameztiak gutxitu egiten dira, pagadiak lotzen zaizkie labore-sailei puntu askotan.

4. Llanada alavesa, Barranca, Cuencas de Pamplona y Aoiz/Lumbier

Estos valles, formados por la Depresión Intrapirenaica o sinclinatorio situado entre las sierras Interiores y Exteriores del Prepirineo, tienen unas semejanzas grandes desde el punto de vista de su paisaje vegetal.

Ello es una respuesta a la semejanza climática, y en tanto ésta muestra variaciones, lo muestra también aquél. La pluviosidad es semejante, aunque los días claros y soleados son más frecuentes en la parte oriental de la Depresión (Aoiz/Lumbier) que en la occidental (Llanada Alavesa). Ello se refleja también en la vegetación.

Evidentemente hoy ésta está representada por cultivos, pero por los bosques de los bordes montañosos y los bosquetes aislados en la misma depresión, muestra una vocación:

- hacia el robledal en la parte alavesa y Barranca
- hacia el quejigal al oriente de Pamplona.

Aquí el robledal ocuparía Ultzama y las cuencas altas del Erro, Urrobi, Irati, Saraitzu y Esca, por debajo del hayedo.

Pero veamos la vegetación arbórea actual partiendo desde la zona más occidental.

Llanada occidental

Carrascal

La Llanada alavesa está limitada por su cara más occidental por la sierra de Badaya, la cual muestra en todas las laderas que miran a aquella extensos carrascales (*Quercus ilex*)

- con un estrato arbustivo de enebros
- y con quejigos en zonas más frescas.

Quejigal

En la zona NW (entre Apodaca y los embalses de Villarreal) y en la SW, mencionada al hablar de las laderas septentrionales de los montes de Vitoria-Gasteiz, domina el quejigal (*Q. faginea*), mostrando la transición entre el clima mediterráneo y el cantábrico.

Siguen presentes:

- enebros,
- a los que se suman arces
- brezos, claro signo, como hemos dicho antes, de una mayor humedad.

Estos quejigales continúan ocupando muchos cerros de la Llanada. También los de la cuenca de Pamplona, Aoiz y Lumbier, pero aquí han sufrido una deforestación mayor y hoy, en muchas zonas de estas cuencas, sus dominios anteriores han sido ocupados por pinares de laricio (*Pinus nigra*) principalmente, por su mayor rendimiento económico, ya que el quejigo se ha utilizado sobre todo para leña, no para la obtención de madera.

Marojal

Volviendo a la Llanada alavesa, podemos observar, que al norte de los quejigales, aplicada ya contra la base del

4. Arabako Lautada, Sakana, Iruñea eta Agoitz-Irunberri

Landaretzari dagokionez, ezagun eta bereziak ditugu ibar hauek eta elkarren antz handia dute. Pirinioen arteko sakonune horiek edo Pirinio aurreko barru nahiz kanpoko mendilerroen arteko sakonuneetan eratuak daude ibar horiek.

Alabaina, landaretza hori klima berdintsuak emandako erantzuna da, hark aldaketak dituen heinean aldatzen baita landaretza ere. Euri kopurua berdintsua da, baina egun eguzkitsuak ugariago dira Agoitz-Irunberriko sakonunetik ekialdera, Arabako Lautadaren mendebaldera baino. Aldaketa hori landaretzan ere islatzen da.

Lurralde hori ia erabat labore sailei emana dago orain, baina mendi-barrenetako eta sakan-bazterretako zuhaiztiak adierazten dutenez, joera bat nabari zaie lur horiei:

- hariztien aldekoa Araba aldean eta Sakanan,
- erkameztien aldekoa Iruñearen ekialdean.

Hemen hariztiak hartuko lukete Ultzama eta Erro, Urrobi, Irati, Zaraitzu zein Eska ibaien goiko arroak, pagadien behealdeetan.

Baina, ikus dezagun gaur egungo bertako landaredia, mendebaldekoenetik hasita.

Mendebaldeko Lautada

Karraskadiak

Arabako Lautada, aurpegirik mendebaldekoenean, Badaia mendilerroak mugatuta dago. Eta hari bere hegala guztietara begiratzuz gero karraskadi (*Quercus ilex*) zabalez jantzia ikusiko da,

- ipuruak zuhaixka-geruza duela, eta erkametzeko
- gunerik bustienetan.

Erkameztiak

Ipar-mendebaldean, Apodaka eta Legutioko urtegien artean eta Gasteizko mendien iparreko hegala aipatzean esan dugun hego-mendebaldean erkameztiak (*Quercus faginea*) dira nagusi, Kantauriko eta Mediterraneoko klimaren arteko trantsizioa agertuz.

Besteak beste, badira:

- ipuruak,
- baina baita astigar eta
Si de los robledales de Garralda seguimos ascendiendo el curso del Irati para acercarnos al pantano de Irabia, aún nos seguirán los robles por el valle pero pronto entraremos en pleno dominio del haya. Es aquí donde se encuentran, sin duda alguna, los mejores hayedos del País Vasco y de la Península Ibérica.

Es raro que este árbol, siendo el que más hectáreas de masa forestal ocupa en el país, no haya conservado su nombre euskérico. El nombre de Pago, Bago o Fago con que se le designa, según las zonas, procede indudablemente del *Fagus* latino, emparentado a su vez con el *Phegos* griego.

Hay quien se ha atrevido a decir que la especie fue introducida en el país por los romanos. Pero esto es absolutamente falso. Ya su distribución actual, unida a que es una de las especies características del dominio floral europeo, con un centro de difusión en el Centro y Oeste de este continente niega rotundamente esa suposición.

Pero hay más. En los análisis polínicos efectuados en yacimientos prehistóricos vascos, se ha podido constatar que el haya está presente ya en el Solutrense y Magdaleniense Medio de Isturitz (16.000 y 13.000 antes de Cristo respectivamente).

Se le conoce también en turberas Neolíticas y postneolíticas de Biarritz (desde el 4000 antes de Cristo). Hoy en día es, con mucho, la especie dominante en el Pirineo Occidental.

Porte

Las hayas de Irati llaman la atención de los excursionistas que acuden a aquel bosque desde Gipuzkoa o Bizkaia. Acostumbrados a ver aquí hayas trasmochas, explotadas para leña, de troncos gruesos, que se ramifican ampliamente a los 2 ó 3 m del suelo, se sorprenden al ver en Irati magníficos ejemplares de más de 30 m de altura, de tronco recto y esbelto.

Hojas

Si seguimos el ciclo estacional de la especie, podremos ver cómo en la primera mitad de la primavera, las hojas, antes de salir, se encuentran plegadas y cubiertas de un vello sedoso, que las protege de las heladas. Para mayo se abren y extienden, originando las típicas hojas simples de bordes ondulados, todavía con pelos largos sedosos, que irán cayendo poco a poco. La pilosidad se reduce después a las nerviaciones, para terminar por desaparecer y quedar las hojas lampiñas y lustrosas. En una misma ladera

Eta hariztien soilguneak gertatzean, sastrakak ugaritzen dira ezpela buru dutelarik.

Gipuzkoan eta Bizkaian zuzenean otea eta txilarra sortzen dira haritz arrunten hutsuneetan.

Iratiko basoa

Pagadiak

Garraldako hariztietatik aurrera jarraituz, Irati ibaiaren ibilbidean gorantz joanez, Irabiako urtegira hurbiltzean hariztiak izango ditugu bidelagun haranean, baina berehala helduko gera pagadietara. Hementxe aurkitzen dira Euskal Herriko pagadirik bikainenak ez ezik, baita iberriar Penintsulako hoberenak ere.

Bitxia da gero, Euskal Herriko zuhaitz-masarik handiena duena izanik ere, bere jatorrizko euskal izena gorde ez izana. Izan ere, pago, bago nahiz fago izenak erabiltzen ditugun arren, ez dira jatorriz euskal hitzak, latinezko *Fagus* hitzetik eratorriak baizik eta grezieratik datorren *Phegos* izenarena, aldi berean.

Pago landarea Euskal Herrira erromatarrek ekarria dela esan duenik ere izan da. Baina, hori ez da egia, argibide asko baitaude aitoren hori gezurtatzeko: batetik, orain hartzen dituen eremuak, Europako flora nagusienetako bat izatea, eta bestetik, kontinente honetako Erdialde eta Mendebaldean izatea bere hedapen-gunea.

Baina bada argibide gehiago ere, hau da, gaur arte historiaurreko euskal aztarnategietan egin diren azterketa polinikoetan, egiaztaturik dago pagoa Solutre aldian eta Madeleine aldian jada presente zegoela Isturitzen (Kristo aurreko 16.000 eta 13.000 urte aurretik).

Miarritzeko Neolito aldiko eta Neolito ondorengo zohikaztegietan ere badaude aztarnak, Kristo aurreko 4.000. urtea baino lehenagokok. Pirinioen mendebaldean espezie nagusia da gaur egun, askoz gainera.

Egitura

Iratiko pagoek harriturik eta txundituta uzten dituzte ibiltariak, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoatik joandakoak. Izan ere, ikatza egiteko eta egurretarako moztutako gerri lodi eta lurretik 2-3 m-tik adaburu handi eta adartsuak ikusten ohituak egonik, Iratin 30 m-ko garaiera baino gehiagoko pago zuzen eta bikainak aurkitzea, benetan harrigarri gertatzen da.

Hostoak

Espezie honen urtaroen zikloa jarraituz ohartuko gara pago horiei udaberriaren lehen erdian hostoak, erne aurretik, tolesturik eta ile leunez estalita egoten direla, izotzetik babesteko. Maiatzerako erneko eta zabalduko dira ertz ondulatuzko hostoak, gerora erortzen joango zaien ile luze leunez estaliak oraindik. Hala, hosto-zainetan bakarrik gelditzen zaizkie ileak aldi batez, baina gerora zeharo botata, leun eta dirdaisu bihurtuko dira hostoak. Mendi hegale berean ikus daiteke: mendi barreneko pa-

PAISAJES PIRENAICOS



Garralda-Olaldeako piriniar zonako malkar harritsuak, Irati ibaiaren alboetan, ederki janzen dira Euskal Herriko haritz kandugabeen (*Quercus petraea*) basorik ederrenez.

Los escarpes rocosos de la zona pirenaica de Garralda-Olaldea, a orillas del río Irati, se revisten de los mejores bosques de roble albar (*Quercus petraea*) de toda Euskal Herria.



El abetal.

Visto este bosque desde la altura, se ve cómo sobresalen las copas cónicas verdeoscursas de los abetos sobre el manto continuo verde claro de las hayas.

Izeidia.

Baso hori goitik ikustean,
pagoen margo berde argizko
mantuaren gainetik
izeien adaburu koniko
berde ilunak nola
nabarmentzen diren ikusten da.



PIRINIAR PAISAIK



Lazagorria-Belagoako eguteraan udazkeneko kromatismoak ederki asko erakusten du zein oportunistaren pinu gorria (*Pinus sylvestris*) eta nola bereganatu dituen ametz ilaundunaren (*Quercus humilis*) baso eremuak

El cromatismo otoñal de la solana de Lazagorria-Belagoa, permite apreciar hasta qué punto el oportunista pino albar (*Pinus sylvestris*) ha invadido la jurisdicción del quejigal de pubescente (*Quercus humilis*)

puede observarse, cómo mientras en la base la hoja ha salido, en las hayas de media ladera está brotando y en las de la cumbre no han brotado.

A partir de octubre, las hojas comienzan a cambiar de color. Su prístino color verde va tornándose amarillento, rojizo y pardo, de variadísimos matices

Estas hojas y las ramas que las soportan se disponen en planos horizontales, a la manera de un mosaico, para captar la luz al máximo. Ello origina una espesísima sombra. De ahí que la importancia del estrato arbustivo en el hayedo sea menor que en el robledal, por falta de luz suficiente bajo las copas de las hayas.

Flores

Las flores salen a la vez que las hojas. Las masculinas forman inflorescencias de aspecto globoso que cuelgan de un largo pedúnculo. Las flores femeninas se presentan en pequeños grupos, por lo general apareadas.

Fruto

El fruto, que madura en septiembre-octubre es trígomo, posee una cápsula correosa recubierta de pequeñas espinas no pinchudas, la cual se abre en cuatro partes para dar en general dos hayucos. Un haya no da fruto abundante todos los años, sino cada 4 ó 6 años. En las primaveras que siguen a los años de cosecha abundante, el suelo suele aparecer cubierto de brotes infantiles en los que puede observarse perfectamente cómo sale la plantilla con sus dos primeras hojas embrionarias (cotiledones) de forma arriñonada, a partir del hayuco.

Madera

La madera del haya es dura, de grano fino, blanco-amarillenta cuando se corta, sin albura y dilramen diferenciados. Se utiliza en ebanistería, tornería textil y entarimados. También como leña y carbón, debido a su gran poder calorífico.

Los hayedos exigen mucha humedad, ya que su amplio follaje posee una intensa transpiración. Las abundantes nieblas del Pirineo navarro, mantienen perfectamente estos bosques a pesar de que se encuentran en el borde meridional de la distribución eurosiberiana de la especie. En las laderas del Pirineo aragonés son menos abundantes y en Cataluña aparecen en forma más fragmentada.

Cortejo

De todas maneras, el cortejo de plantas que acompañan a estos hayedos no es el mismo que el que acompaña a los hayedos cantábricos.

En éstos apenas existe un estrato arbustivo. A lo sumo se observan algunos serbales, acebos y tejos aislados. Incluso el estrato herbáceo está reducido.

En cambio, en los hayedos pirenaicos el suelo herbáceo es más rico y variado y entre los arbustos, además del acebo se encuentra el boj.

goari hostoak erne zaizkion bitartean, ernetzen ari zaizkiela erdi mailetakoei eta ez zaizkiela oraindik erne goieneko mailakoei.

Udazkenean, urritik aurrera hasten dira hostoak margoz aldatzen. Jatorrizko margo berdeak, horizta, gorrizta eta arre bihurtzen dira, ñabardura edo tindu ugaz hornituta.

Hostoak eta hauen euskarri diren adarrak, zeharretara horizontalki zabaltzen dira pagoetan, hosto bakoitzak gainekoen tartetik argia hartu dezaten. Horregatik izaten da pagadietako itzala trinko-trinkoa, argi bila dabilztan hostoak zirrituak ixten dituztelako. Eta ondorioz, pagadietako sastrakadia ez daiteke hariztietakoa bezain ugaria eta garrantzizkoa izan, pagopera ez baitaie behar beste argi sartzen.

Loreak

Hostoekin batera agertzen zaizkie loreak ere. Lore-elkarre esferikoak izaten ditu arrak, txorten luze batetik zintzilik. Lore emeak, berriz, sorta txikitik izaten ditu, gehienetan binakakoak.

Fruitua

Iraila eta urria bitartean heldu ohi da pagoaren fruitu hiruak, eta zulatzen ez duten arantzatzoz inguratuta egoten da; lau zatitan zabaltzen da eta bi pago-ezkur ematea da ohikoena. Pago bakoitzak ez du urtero fruitu ugari ematen, 4-6 urtetik behin baizik, eta orduan oparo. Uzta ugaria eman duten urteen ondorengo udaberrietan nabari izaten da lurtean: pago-ezkurretik sorturiko hostotxo bikoitz berriez lurra estaliz agertzen dira, giltzurrun-itxurako bi hostotxo kotiledoiak, landaretxo berriak ernetzen hasi direneko ezaugarri.

Egurra

Gogorra da pagoaren egurra, pikor txikiduna, margoz zuri horizta ebaki-berritan, eta ez du alderik egur gizen, egur-gihar eta bihotzaren artean. Asko erabiltzen da zurgintzan, batez ere altzarigintzan, ehungintzako tornuetan eta oholtzak egiten. Su-egur eta ikazkintzarako ere asko erabiltzen da, erregarri oso beroa baita.

Hezetan handia behar dute pagadiak; haren hostotza ugari eta trinkoa transpirazio handikoa baita. Nafarroako Pirinioetako behe-laino ugariak ederki eusten diote pagadietako ezkotasunari; nahiz eta zuhaitz espezie hori banalerro eurosiberiarraren hegoaldeko ertzean egon. Aragoiko Pirinioetan askoz urriago dira pagadiak eta Katalunian modu zatikatuagoan agertzen dira.

Landare lagunak

Nolanahi ere pagadi horien landare lagun edo segizioak ez dira Kantauri aldeko pagoenak bezalakoak.

Kantauri aldekoetan ez dago ia zuhaixka-geruzarik; gehienez ere otsalazar, gorosti eta haginaren batzuk, baina horiek berak bakan. Belardia-geruza ere eskasa izaten da. Pirinioetako pagadietan, berriz, aberatsagoa eta ugariagoa da belar-geruza; eta sastrakadietan gorostiaz gainera ugari da ezipela.

En el estrato herbáceo,
 - además de anémonas verónicas,
 - pulmonarias,
 - euforbias o lechetreznas,
 - circeas
 - y escilas,
 - hay una serie de gramíneas y mas de media docena de especies diferentes de helechos.

El abetal

Si continuamos por el hayedo hasta llegar al embalse de Irabia y alcanzamos su zona oriental, podremos observar otro tipo de formación vegetal: el abetal, aquí espontáneo.

Otras coníferas de la zona, como alerces y pino albar son introducidas por la mano del hombre, si bien el pino albar es autóctono en zonas próximas mas soleadas, como por ejemplo en la misma vertiente meridional de la sierra de Abodí, que cierra por el S el valle en que nos encontramos.

Estos abetos son la avanzadilla mas occidental de la distribución europea de la especie. (Los existentes en Leizalarrea (Leitza), fueron transplantados hace más de siglo y medio desde Irati. También lo fueron otros existentes en la sierra de Leire y algunos puntos más). Esta especie, abundante en los macizos montañosos centroeuropeos, alcanza el Pirineo y forma importantes bosques sobre todo en el valle de Aran.

Los abetos de Irati, por estar también en un extremo de su distribución geográfica, forman bosques, entremezclados con hayas, constituidos por magníficos ejemplares. Sobresale a este respecto el espléndido bosque mixto, denominado también La Cuestión por lo que más adelante diremos.

El **abeto** (*Abies alba* o *A. pectinata*) denominada *izai* en euskera es una conífera de la familia de las pináceas, que pueden alcanzar más de 40 m de altura, de porte general cónico o piramidal, de tronco recto y esbelto, sin ramas en su parte inferior y con ramas horizontales verticiladas más arriba.

Las acículas son relativamente cortas y aisladas de una en una. Están insertas en forma helicoidal, pero debido a una flexión del pecíolo, se disponen en un plano, a la manera de un peine.

Florecen en abril-mayo y las piñas maduran en septiembre-octubre.

Estas piñas no suelen caer al suelo como las de los pinos, sino que van desescamándose mientras el eje de la piña raquis sigue unido a la rama del árbol durante el invierno. Suelen dar piña todos los años, aunque no siempre con la misma abundancia.

Visto este bosque desde la altura, se ve cómo sobresalen las copas cónicas verdeoscuros de los abetos sobre el manto continuo verde claro de las hayas.

En general, por exigir suelos bastantes profundos, los abetos ocupan las zonas bajas y medias de las laderas. De

Belar-geruzetan,
 - anemona,
 - aretxarte, biri-belarra,
 - eufobia,
 - esne-belarra,
 - zirzea
 - eta astatipulaz gain,
 - badira gramineoak eta dozena erdi espezie baino gehiago garoetan.

Izeidia

Pagaditik barrena jarraituta, Irabiako urtegira iritsi eta haren ekialdeko gunea jotzen badugu, beste mota bateko landare-formazioak aurkituko ditugu, berez sortzen den izeidia.

Alderdi horretako beste koniferoak, alertzea eta ler gorria esate baterako, gizakiak landatutakoak dira, nahiz eta beste gure egutera goetan ler gorria bertakoa izan, adibidez Abodi mendilerroaren hegoaldeko isurialde berean, gu gauden harana hegoaldeetik ixten duen hartan.

Izei horiek espeziearen europar banaketaren aitzindari-talde mendebaldekoenak dira. (Leitzako Leitzalarrean daudenak mende erdi baino gehiago da Iratitik ekarrita landatu zirela. Leireko mendilerroan eta beste zenbait tokitan daudenak ere halaxe landatuak dira).

Europako erdialdeko mendigunetan ugari den espezie hori Pirinioetara iritsi eta baso garrantzitsu batzuk osatzen ditu, Haran haranean batez ere.

Iratiko izeiek ere, banketa geografiko horren mutur batean egotean, zuhaitz marduleko basoak eratzen dituzte pagoekin nahasian. Honi dagokionez, baso misto bikaina nabarmentzen da, gero azalduko dugun auziatatik Cuestion deritzona.

Euskaraz **izei zuria** (*Abies alba* edo *A. pectinata*) deitzen dioguna pinazeoen familiako konifero bat da. Garaieran 40 m hazi daiteke eta egituraz konikoa edo piramidala da normalean. Enborra zuzena eta liraina du, behealdean adarrik gabea eta goian adar horizontal bertizilatutak dituen.


Labur samarrak dira hosto-orratzak eta oso banakakoak. Helize-forman egoten dira sartuak eta hosto-txortenen flexio bategatik, orraze itxura hartzen dute.

Apirila eta maiatzean loratzen dira eta pinaburuak iraila eta urrian.

Pinaburu horiek ez dira pinuarenak bezala lurrera erortzen, ezkatak bakarrik erortzen zaizkie eta txortenen zuhaitz-adarrari itsatsita jarraitzen du neguan ere. Urtero ematen ditu pinaburuak, baina ez beti ugartasun berean. Baso hori goitik ikustean, pagoen margo berde argizko mantuaren gainetik izeien adaburu koniko berde ilunak nola nabarmentzen diren ikusten da.


Gehienez lur sakona behar izaten dutenez, mendi hegalek erdialdetan eta barrenean izaten dira. Horregatik nagusitzen zaio pagoa goiko eremuetako lurzoru axalagoetan. Bestalde, nahiago izaten ditu toki oso eguzkitsuak baino eguzki gutxiagokoak. Laiotz edo ospeletan izaten

PAISAJES PIRENAICOS



Vegetación escalonada en Pirineos

Landaredi mailakatua Pirinioetan.



Lazagorria-Belagoako
egutera udazkeneko kromatismoak.
Pinu gorria (*Pinus sylvestris*)

El cromatismo otoñal de la solana
de Lazagorria-Belagoa, Pino albar (*Pinus sylvestris*)



PIRINIAR PAISAIK



Erronkaribarreko mendebaldean dauden mendi garaietako eremuek hartzen dute Euskal Herri osoan pinu gorriaren (*Pinus sylvestris*) baso potentzialtzat jotzen direnak (Ezkaurre)

Los niveles altimontanos del sector oriental del valle del Roncal acogen los que se consideran únicos bosques potenciales de pino albar (*Pinus sylvestris*) de toda Euskal Herria (Ezkaurre)

ahí que le aventaje el haya en las zonas altas de suelos poco profundos. Prefiere también zonas menos soleadas a las muy soleadas. Por eso domina en las umbrías, mientras que es sustituido por el pino albar en las solanas.

Madera

La madera es blanca y resistente. Soporta bien la humedad. Por eso ha sido utilizada como pilotes de soporte en construcciones sobre terrenos húmedos. Se utiliza también como revestimiento en construcciones de montañas, tales como chalets o refugios de estilo alpino. Es también utilizada en la fabricación de cajas de instrumentos musicales, como pianos, violines, guitarras, etc.

La leña del abeto no es buena, pues arde muy rápidamente y tiene poco poder calorífico. Se obtiene en cambio resina.

La calidad de este extraordinario bosque del Irati ha sido causa de importantes conflictos por la propiedad y el aprovechamiento, en especial de los hayedos vasta citar los litigios entre los Estados francés y español a partir del siglo XVIII ya que ambos querían explotar su madera en la construcción naval. La frontera entre los dos Estados varió y los litigios no cedieron hasta el llamado Tratado de Límites firmado en 1856, fecha en que se estableció la actual frontera. Como el Estado francés pretendía que ésta siguiera el curso del Irati, el español tuvo que ceder a cambio tierras en Valcarlos, Saraitzu y El Roncal. Posteriormente el valle de Saraitzu discutió largamente al Estado Español la propiedad del denominado monte de La Cuestión, que por Sentencia del Tribunal Supremo de 1880, quedó para el Estado.

Pinares pirenaicos

Ya hemos dicho que los hayedos forman casi una mancha continua en las zonas pirenaicas que comentamos. Los abetos no se limitan al bosque citado del Irati, sino que se extienden también por los valles de Saraitzu y Roncal. Digno de mención, entre otros, es el bosque de Txamantxoia/Maze.

Pero en el Roncal, además de tener contacto con el haya lo tiene también con el pino albar y en las zonas más altas incluso con el pino negro.

Pino albar

El **pino albar** o **pino royo** (*Pinus silvestris*) es un árbol de gran vitalidad que ocupa en Navarra biotopos muy diversos, mezclándose

- en las zonas meridionales con el quejigo y la encina carrasca
- y en el Pirineo con el haya, el abeto y el pino negro, con el que llega a hibridarse.

Coloniza fácilmente los claros abandonados. En el Roncal se le puede ver hoy en zonas que ayer eran pastos o campos de cereal.

da ugarienik; toki egutera edo eguzkitsuetan, berriz, ugarriago izaten da ler gorria.

Egurra

Zuria eta iraunkorra izaten da izeiaren egurra. Hezetasunak nekez erasaten dio. Hain zuzen, horregatik erabili izan da pilote euskarri gisa toki zingiratsuetako eraikuntzetan. Mendietako eraikuntzetan ere erabiltzen da, mendi-etxe eta eski alpetarreko aterpetxeen estalki gisa. Musika-tresnen zurajea egiten ere erabiltzen dute, adibidez, piano, biolin, gitarra eta abarretan.

Sutarako ez da egur oso ona, berehala erretzen da, baina ez du berotasun handirik ematen. Erretxina ateratzen zaio. Iratiko baso harrigarri eta bikain honen aberastasuna dela-eta, eztabaida eta istilu handiak sortu izan dira, jabetasuna eta erabilpena auzitan ipiniz. Ikusi besterik ez dago zer-nolako liskar eta auziak izaten ziren XVIII. mendean Espainia eta Frantziaren artean, biek ere ontzigitzarako ustiatu nahi izaten baitzuten. Estatu bien arteko mugak aldatu zituzten arren, auziak ez ziren amaitu, 1856. urtean gaur ezagutzen dugun muga finkatu zeneko Muga Ituna izenpetu bitartean. Izan ere, Irati ibaiaren ibilbidea jarraituz ezartzea eskatu zuen gogor Frantziak eta Espainiak trukean utzi egin behar izan zion Luzaide, Zaraitzu eta Erronkariko zenbait sailen erabilpena. Geroa Zaraitzu haranak auzitan gogor ekin zion Espainiako estatuari bere aurka, «La Cuestión» izeneko sailen jabetasuna ukatzen ziolako; baina Auzitegi Gorenaren erabakiz 1880. urtean Estatuarentzat gelditu zen.

Pirinioetako pinudiak

Lehen esan dugu Pirinioetako sail horietan pagadiak ia etengabeko orbanak direla. Izeiak, berriz, ez daude Iratiko baso horretan bakarrik; Zaraitzu eta Erronkariko haranetan zehar ere hedatzen dira. Besteak beste, aipatzeko modukoa da Txamantxoia basoa.

Erronkarin pagoaz gain, badira nahasturik tartetan pinu gorriak, eta tokirik goituenetan baita mendi-pinuak ere.

Pinu gorria

Indar handiko zuhaitza dugu Nafarroan hainbat biotipo okupatzen dituan **pinu gorria** edo ler gorria (*Pinus silvestris*),

- hegoaldeko eremuetan erkametzarekin eta karraskarekin nahasirik,
- eta Pirinioetan pagoarekin, izeiarekin eta hibridatzera iristen den mendi-pinuarekin.

Erraz bereganatzen ditu argigune abandonatuak. Erronkarin, adibidez, atzo larre edo labore-lur ziren alorretan ikus daiteke gaur.

No exige sustratos tan profundos como el abeto, por lo que puede crecer también bien en los suelos pedregosos. A cambio exige más exposición solar que éste. En el estrato arbustivo de estos pinares pueden verse boj, arce, acebo, espino, alidustre, etc.

En el estrato herbáceo hay

- anémonas,
- lechetreznas,
- prímulas
- y verónicas.

El estrato de musgos es muy importante.

Porte

El pino silvestre es un árbol de tronco recto y esbelto, pero no tan alto como el abeto. Es de porte general cónico o piramidal cuando es joven, pero cuando enrojece modifica ese porte juvenil de distintas maneras, por ejemplo, despojándose de las ramas expuestas a los vientos fríos.

Las acículas, agrupadas de dos en dos, son cortas (3-6 cm), menores que en los demás pinos existentes en la Península, tanto autóctonos como de importación.

Las flores masculinas se presentan en espigas de unos 3 cm de longitud. Producen una enorme cantidad de polen. Puede comprobarse esto en mayo o junio, tocando simplemente la ramita que las soporta. Las flores femeninas se presentan en conos globosos pequeños, de unos 5 mm de longitud.

Las piñas son pequeñas (4-5 cm), menores también que los de los demás pinos peninsulares.

La madera junto con la del pino negro, es la mejor de los pinos peninsulares para carpintería y ebanistería. Se ha utilizado también mucho en construcción por su larga duración.

Pino negro

El **pino negro** (*Pinus uncinata*) arranca en el Pirineo Roncalés allá donde el pino albar deja de ascender, existiendo una zona de hibridación entre ambos.

Porte

Es un árbol, menor que el pino albar, que puede presentar buen porte, con ramificación desde su base si se encuentra sobre buen sustrato. Con frecuencia los lugares inhóspitos en que se encuentra (Larra) obligan a fuertes modificaciones en su porte. Posee un potente sistema de raíces, mediante el que se adapta perfectamente a las anfractuosidades de muchos de los roquedos en que vive. Es de mayor longevidad que el pino albar, pudiendo pasar los 500 años.

Sus acículas, flores y piñas son semejantes a las del pino albar, pero estas últimas presentan en sus escamas una especie de gancho saliente, que no muestran las del pino albar.

Izeiak bezain lur lodi edo sakonik behar ez duenez, bazter harritsuetan ere ondo hazten da. Baina, bestalde, izeiak baino eguzki gehiago behar du.

Pinudi horien zuhaixka-geruzan ikus daitezke ezpela, astigarra, gorostia, elorria, basa-erramua etab.

Belar-geruzan daude anemonak, esne-belarrak, san Jose loreak eta aretxarteak.

Goroldio-geruza oso handia da.

Egitura

Enbor sendo eta zuzena izaten du ler gorriak, izeia bezain luzea ez izan arren. Gaztetan bederen, itxura koniko edo piramidala izan ohi du, baina gorritzen denean, gaztetako lerdentasuna galdu egiten du; adibidez, haize hotzetara dauzkan adarrak ihartu eta erortzen utziz.

Binaka izaten ditu hosto-orratzak eta Penintsulako beste pinu guztiek baino laburragoak, bertakoak izan edo ekarritakoak izan, (3-6 cm).

Lore arrak 3 cm-ko buruxkatan izaten ditu eta izugarriko polen mordoa ekoizten dute. Eusten dien adartxoak maiatzetan edo ekainean ukituta nabari izaten da. Lore emeak kono esferikoetan agertzen dira, eta luzeran 5 mm inguru izaten dute.

Pinaburuak txikiak izaten dira (4-5 cm), penintsulako beste gainerakoak baino txikiagoak horiek ere.

Egurra, berriz, asko erabiltzen dute zurgintzan eta altzarigintzan, mendi-pinuarekin batera, eta penintsulako beste pinu guztiena baino hobea da. Eraikuntzan ere asko erabiltzen dute, iraupen handikoa delako.

Mendi-pinua

Mendi-pinua (*Pinus uncinata*) Erronkariko Pirinioetan hasten da, ler gorriak gorantz jarraitzeari uzten dion gunean zehatzago esanda; hala ere bada bien arteko hibridazio-gune bat.

Egitura

Ler gorria baino apur txikiagoa da, baina itxura ederrekoa, behetik goraino adartsua izaten da, azpigeruza onean baldin badago. Ingurugiro latzetan gertatzen denean, Larran esate baterako, itxura-aldaketa handiak egin beharrean izaten da. Sustrai indartsuak izaten dituenaz, ederki itsasten da zenbait harkaitz-zirritu eta bihurtzera. Ler gorria baino zaharragoa izan daiteke, eta 500 urte bizitzera iritsi.

Mendi-pinuaren hosto-orratzak, loreak eta pinaburuak, ler gorriaren antzekoak dira. Alabaina, pinaburuetan badu desberdintasun bat: ezkatetan besteak ez bezalako kako irtenak ditu, ler gorriak ez bezalakoak.

Los pinares de pino negro pirenaicos, con buenos bosques en Lérida y Huesca, llegan en su extremo occidental hasta Ori, si bien su mejor representación dentro del País Vasco, se encuentra en Larra. Aquí suben en altitud hasta los 2.000 m, zona donde el paisaje es totalmente desarbolado y sólo existen pastos alpinos. Los pastos existentes bajo estas altitudes son debidos a la deforestación provocada por ganaderos.

En todo caso los bosques navarros de pino negro no forman masas continuas, sino una cubierta poco densa.

Le acompañan plantas como

- el arándano,
- la azalea de montaña,
- algunos serbales,
- la zarzamora de roca,
- algún que otro enebro
- y una serie de plantas herbáceas como pequeños claveles y pequeñas jaras y una serie de gramíneas y ciperáceas.

Madera

La madera de los buenos ejemplares es mejor que la del pino albar, en especial para objetos que deban pulimentarse.

Aparte de su valor estético y paisajístico posee un alto valor como protector del sustrato, por sujetar pedrizas, frenar aludes, etc.

La distribución de la especie se limita casi exclusivamente a los Alpes, Macizo Central Francés, Pirineos y Cebo-llera (Soria). Esta «rareza» hace que el pinar de Larra deba de conservarse con creciente esmero por constituir una reliquia, no sólo el árbol dominante, sino el ecosistema total en el que vive.

Las almadías

Todos estos magníficos bosques pirenaicos han sido explotados desde antiguo. Una de las vías de salida de la madera hasta no hace mucho tiempo era el cauce de los ríos. Con los troncos de los árboles a los que se les quitan previamente las ramas se construían las almadías. A los troncos se les hacía una muesca en la que se insertaba un travesaño atado con varillas de avellano. Llevaban dispositivos para fijar los remos.

Los almadieros tenían que conducir estas balsas, con gran maestría, sorteando raudas y rápidos y otras muchas dificultades, antes de llegar al río Aragón. Las almadías llegaban así hasta Zaragoza e incluso hasta Tortosa.

Pirinioetako mendi-pinudiak mendebaldetik jarraituz Orhi mendiraino iristen dira, eta Lleidan eta Huescan baso bikainak ditu nahiz eta bere ordezkariarik onena Larrakoa den Euskal Herrian. Hemen 2.000 m-ko garaiera hartzen du, zuhaitzik gabeko larre soilak besterik ez den paisaia. Garaiera horietatik beherako larre-sailak abeltzainek baso soiltze bidez lortuak dira.

Baina, nolanahi ere, Nafarroako sailetan mendi-pinuak ez dauka baso itxirik, pinudi sareagoak baizik.

Mendi-pinuaren lagun azaltzen dira:

- ahabia,
- mendiko azalea,
- otsalizarrak,
- masustak,
- ipururen batzuk eta
- hainbat motatako belarkiak: krabelinak, estrepak, gramineo-loreak eta ziperazeo batzuk.

Egurra

Ler gorriaren egurra baino hobea da mendi-pinuaren egurra, ale bikainena bederen, batez ere leundu egin behar diren gauzetarako.

Balio estetikoa eta paisaia bikaina eskaintzeaz gain, bere tankera bereziari esker, azpigeruzaren babesle da eta lagundu egiten dio hartxingadiei, luiziei eta abarri eusten. Pinu espezie hori Alpeetan, Frantziako Erdialdeko Mendigunean, Pirinioetan eta Soriako Cebolleran baizik ez da hedatu. Horiek horrela, Larrako pinudia bitxi bat da, gero eta kontu handiagoz zaindu beharreko erlikia, ez pinu gainartzailea bakarrik, baita bizi deneko ekosistema ere.

Almadiak

Pirinioetako basoak oso antzinatek ustiatu izan dira. Botatako egurrak basotik ateratzeko moduetako bat ia oraintsu arte, ibaien ibilbideak izaten ziren. «Almadiak» egiten zituzten, garraiatu beharreko zuhaitzei adar guztiak kendu eta zuhaitz enborrak elkarki lotuta. Zuhaitz enbor horiei koska batzuk egiten zitzaizkien, eta haietan zeharrra batzuk kokatzen, eta hurriz-bilurrez lotzen. Arraunak ipintzeko tokiak ere antolatzen zizkieten.

Almadilariak trebetasun handia behar zuten baltsak ur-laster biziak eta parrastak igaroz, eragozpen guztien artetik aurrera Aragoi ibairaino iristeko. Almadiak Zaragozara eta Tortosara ere iristen ziren.



Pino Negro en el macizo de Larra. El Arlas al fondo.
Mendi-pinua Larrako mendigunean, Arlas atzean duela.



PAISAJES PIRENAICOS



Pino negro en Larra.

El pino negro (*Pinus uncinata*) arranca en el Pirineo Roncalés allá donde el pino albar deja de ascender, existiendo una zona de hibridación entre ambos.

Mendi-pinua Larran.

Mendi-pinua (*Pinus uncinata*). Erronkariko Pirinioetan hasten da, ler gorriak gorantz jarraitzeari uzten dion gunean zehatzago esanda; hala ere bada bien arteko hibridazio-gune bat.

Pino negro en Larra. Al fondo el Auñamendi.

El pino negro (*Pinus uncinata*).

Sus acículas, flores y piñas son semejantes a las del pino albar, pero estas últimas presentan en sus escamas una especie de gancho saliente, que no muestran las del pino albar.



Mendi-pinua Larran. Atzean Auñamendi.

Mendi-pinua (*Pinus uncinata*).

Mendi-pinuaren hosto-orratzak, loreak eta pinaburuak, ler gorriaren antzekoak dira. Alabaina, pinaburuetan badu desberdintasun bat: ezkatetan besteak ez bezalako kako irtenak ditu, ler gorriak ez bezalakoak

PIRINIAR PAISAIK



Mendi-pinua Larran. Atzean Añamendi

Mendi-pinua (*Pinus uncinata*). Ler gorria baino apur txikiagoa da, baina itxura ederrekoa, behetik goraino adartsua izaten da, azpigeruza onean baldin badago. Ingurugiro latzetan gertatzen denean, Larran esate baterako, itxura-aldaketa handiak egin beharrean izaten da. Sustrai indartsuak izaten dituenek, edarki itsasten da zenbait harkaitz-zirritu eta bihurgunetara. Ler gorria baino zaharragoa izan daiteke, eta 500 urte bizitzera iritsi.

Pino negro en Larra. Al fondo el Añamendi

El **pino negro** (*Pinus uncinata*). Es un árbol, menor que el pino albar, que puede presentar buen porte, con ramificación desde su base si se encuentra sobre buen sustrato. Con frecuencia los lugares inhóspitos en que se encuentra (Larra) obligan a fuertes modificaciones en su porte. Posee un potente sistema de raíces, mediante el que se adapta perfectamente a las anfractosidades de muchos de los roquedos en que vive. Es de mayor longevidad que el pino albar, pudiendo pasar los 500 años.

ESPECIES HERBÁCEAS



Eguzki-lore luzea (Angélica carlina).

Carlina acaulis

Eguzki-lore deritzon bestearen oso antzekoa da. Konposatua. Loreak kapitulu ugarian ditu, baina biran dituen brakteak zuri zilarkarak dira, horizten ordeztu. Mendiko larre eta leku harritsueta sortzen da.

Angélica carlina (Eguzki-lore luzea).

Carlina acaulis

Compuesta. Flores en grueso capítulo que es muy parecido al del conocido (Eguzki-lore), pero las brácteas que lo circundan son de un blanco plateado en vez de amarillas. En prados y terrenos pedregosos de montaña.



Zangurdina (Cardo blanco).

Eryngium bourgatti

Landare arantzaduna da, karduren antzekoa. Ginbailduna. Zurtoin edo zango urdin eta luze samar bat du. Mendiko larre lehorretan izaten dira.

Cardo blanco (Zangurdina).

Eryngium bourgatti

Umbelífera.

Planta espinosa que recuerda a los cardos. Tallos azulados que se elevan en prados secos de montaña.

BELAR-MOTA ESPEZIEAK

Arrautsi belarra
(*Saxifraga* edo *Corona de rey*).

Saxifraga longifolia

Oso ugaria Pirinioetan.

Harkaitzetako zirriztu eta pitzatuetan izaten da,
bere sustraiak harkaitzean sakon errotuz.
Erroseta-formako oinarritik lorez betetzen zaion
zutoin luze bat sortzen zaio landare honi.

Poliki hazten da eta,
behin loratu ondoren, ihartu egiten da.



Saxifraga, Corona de rey
(Arrautsi belarra).

Saxifraga longifolia

Saxifragácea.

Endémica del Pirineo.

Crece en fisuras de rocas, donde sus
raíces penetran profundamente.

De la roseta de hojas basal nace un largo
tallo que se llena de flores blancas.

Desarrollo lento y,
una vez que han florecido muere.

ESPECIES HERBÁCEAS



Betibizia (Siemprevivas)

Sempervivum montanum

Teilatuetako betibizi ere deitzen zaio familia horretako bati. Betibizien hostoak mamitsuak izaten dira eta harkaitz eta haitz gainetan hazten diren landare hauei ongi datorkie ur-erreserba on bat izateko, han azkar ihes egiten baitie euri-urak.

Siemprevivas (Betibizia)

Sempervivum montanum

Crasulácea.

Las hojas carnosas de los *sempervivum* guardan una buena reserva de agua, que viene muy bien a este tipo de plantas que crecen en rocas y peñas, lugares en que el agua de las precipitaciones se escurre pronto.



Garikota (Silene o silene musgo). *Silene acaulis*

Klima alpinoak eskatzen duen egokitzapenaren adibide garbi bat da Cariofilácea familiako landare hau. Lurrari atxikirik hazten da trinko eta estuki, haizearen erasoei aurre egiteko. Ekainetik abuztura bitartean, lorez arrosez estaltzen da.

Silene, Silene musgo (Garikota). *Silene acaulis*

Esta cariofilácea es un buen ejemplo de las adaptaciones que exige el clima alpino. Crece pegada al suelo, densa y apretada, para defenderse del viento. De junio a agosto se cubre de flores rosadas.

BELAR-MOTA ESPEZIEAK



ESPECIES HERBÁCEAS



Genciana (Errosta, Gentziana).

Gentiana kochiana

Gencianácea. Sus grandes flores azules, de hasta 6 cm en forma de trompeta, llaman la atención desde muy lejos sobre el fondo verde del pastizal alpino. Crece, también en roquedos.

Muy parecida a la *G. Pyrenaica*, algo menor.

Errosta edo gentziana (Genciana).

Gentiana kochiana

Gencianacea familiakoa da.

Tronpeta antzeko bere lore urdin handiak, 6 cm inguru neurtzen dute eta goi-mendietako larre berdeetan urrutira nabarmentzen dira.

Harkaitzetan ere hazien da. Pirinioetako errosta edo gentziana txikiagoaren antzekoa da.



BELAR-MOTA ESPEZIEAK



Primavera (San Jose lorea). *Primula sp.*

Primulácea.

En montaña crecen varias especies de primulas con flores de tonos rosa. En la fotografía podemos apreciar el bonito contraste entre el azul de las gencianas y el rosa de las primulas sobre el fondo verde del pastizal alpino.

San Jose lorea (Primavera). *Primula sp.*

San Jose lore izenekoa da.

Espezie bereko landareak ugari izaten dira goi-mendietan, loreak arrosa kolorekoak izaten ditu.

Argazkian dotore ageri dira Pirinioetako larre berdeen gainean, errosta loreen urdina eta san Jose loreen arrosa-kolorea.



ESPECIES HERBÁCEAS



Pentsamendu hirukolorea (Pensamiento salvaje).
Viola tricolor ssp. alpestris

Biolazeoa da.

Urdina du lorea eta erdigunean zati horiztak ditu zenbait subespezietan. Pirinioetako subespeziea horia da, argazkiak ikus daitekeen bezala.

Pensamiento salvaje (Pentsamendu hirukolorea).
Viola tricolor ssp. alpestris

Violácea.

Esta especie tiene una flor azulada con solo retazos de amarillo en las zonas centrales de algunas subespecies.

La subespecie alpestre es, como puede verse en la ilustración amarilla.

Lunaria menor de flores azules. *Soldanella alpina*

Bonita primulácea cuyas flores son unas de las primeras que alegran la montaña en primavera. Son tan precoces que, muchas veces, florecen antes de la retirada total de la capa de nieve que cubre el suelo, ofreciendo entonces un curioso efecto sus flores campanuladas emergiendo del manto nívico.



Soldanella alpina

San Jose loreen familia berekoa da, udaberrian mendietan lehenengo loratzen den lore polita. Oso dira goiztiarrak eta sarritan elur mantua erabat urtu baino lehen loratzen dira, eta orduan ikuskizun bitxia eskaintzen dute: estalki zurian azpitik ezkliformako lore urdinak jaiotzen.

Pirinioetako kuku-belarra
(Aguileña). *Aquilegia pyrenaica*

Ranunculaceae familiakoa da.

Pirinioetako endemikoa.

Beste familiako arruntak baino urdin apalagoa du lorea.

Goi-mendietan baino ez da hazten.



Aster alpinus

Konposatua da.

Oso arrunta da goi-mendietako belardietan. Bitxilorearen oso atzekoa da, baina ligulak urdinak ditu loreak.

Aster alpinus

Compuesta.

Muy común en pastizales alpinos, donde se abren sus flores parecidas a las margaritas pero con las lígulas de color azul.



Aguileña (Pirinioetako kuku-belarra).

Aquilegia pyrenaica

Ranunculácea. Endemismo pirenaico. De flores azul más pálido que la vulgaris y que crece solo en niveles alpinos.

BELAR-MOTA ESPEZIEAK



Ramonda Myconi (Hartz-belarria). *R. pyrenaica*

Gesneriácea.

Famosa por la belleza de sus flores
que nacen de una roseta de hojas anchas y ovals.
Crece en fisuras de rocas húmedas en zonas umbrasas.

Hartz-belarria (Ramonda Myconi). *R. pyrenaica*

Gesneriaceae familiakoa da.

Erroseta-formako hosto zabal eta arrauzkaren artean izaten
duen lorearen edertasunagatik da ezaguna.
Harkaitz zirrikitu heze eta urtsuen artean hazten da.

ESPECIES HERBÁCEAS

Irabelarra edo alarguntsa-belarra
(Acónito común). *Aconitum napellus*

Ranunculacea familiakoa da irabelarra.

Lore urdin apainak dituen landare horrekin komenigarri da kontuz ibiltzea. Irabelar honek «aconitina» deritzon pozoia izaten du, oso kaltegarria, kontuz erabiltzekoa da. Gauza bera esan daiteke ondoko *Aconitum lamarckii* delako horretaz.

Aconitum lamarckii



Aconitum napellus

Acónito común (Irabelarra, Alarguntsa-belarra).

Aconitum napellus

Ranunculácea.

Conviene andar con cuidado con esta flor azul tan llamativa.

La aconitina que contiene esta planta es un veneno muy activo.

Lo mismo puede aplicarse al *Aconitum Lamarckii* que aparece en la ilustración de la izquierda.

BELAR-MOTA ESPEZIEAK



Lirioa (Iris). *Iris Xiphioides*

Iridaceae familiakoa.

Zelai eta belardietan hazten den landare errabolduna da.

Pirinioetako endemikoa da.

Uztaila-abuztu bitartean zabaltzen zaizkio lore urdin ederrak.

Iris (Lirioa). *Iris Xiphioides*

Iridácea.

Planta bulbosa que crece en praderas y pastizales.

Endemismo pirenaico.

Hermosas flores azules que se abren en julio-agosto.



Mugeta edo ezkongai-lore (Convallaria).

Convallaria majalis

Liliaceae familiakoa da eta baso freskoetan sortzen da,

frantziarrek «muguet» deitzen diotena.

Lore zuri-zuri politak dituelako landatzen da.

Convallaria (Mugeta, Ezkongai-lore).

Convallaria majalis

El conocido muguet de los franceses

otra liliácea de bosques frescos.

Especie que se cultiva por sus bonitas flores, de un blanco puro.

ESPECIES HERBÁCEAS



Edelweiss, Flor de nieve (Elur-lorea).

Leontopodium alpinum

Compuesta. El conocidísimo Edel Weiss o flor de nieve creemos que no necesita de presentación.

Es un poco el símbolo de la montaña y el montañismo.

Es especie protegida, pues la excesiva recolección pone en peligro la supervivencia de la especie en muchas zonas.

Elur-lorea (Edelweiss, Flor de nieve).

Leontopodium alpinum

Konposatua da.

Oso ezaguna da Edelweiss izenez.

Mendizaleen eta mendizaleetasunaren sinboloa da.

Babespeko espeziea da, gehiegi biltzen denez,

galzorian baitago zenbait tokitan.

BELAR-MOTA ESPEZIEAK



Elur-lorea / Edelweiss, Flor de nieve.

ESPECIES HERBÁCEAS



Zitori horia (Lirio de los Pirineos). *Lilium pyrenaicum*

Liliaceae familiakoa da. Pirinioetako endemikoa.
Politak dira espezie honen lore horiak, baina usai txarrekoak.

Lirio de los Pirineos (Zitori horia). *Lilium pyrenaicum*

Liliácea endémica del Pirineo.
Las bonitas flores amarillas de esta especie despiden un olor poco agradable.



Zitori gorria (Lirio, Martagon). *Lilium martagon*

Aurrekoaren familia berekoa da. Zurtoina, ordea, politagoa du.
Mendiko belardietan eta baso harritsuetan izaten da,
eta ekainetik uztailera loratzen.

Lirio, Martagon (Zitori gorria). *Lilium martagon*

Congénere de la anterior. Su tallo suele ser más grácil.
Crece en bosques rocosos y prados de montaña,
floreciendo de junio a julio.

Orkidea (Orquídea). *Orchis sambucina*

Orchidaceae familiakoa da,
baina aurrekoa baino beherago jaisten da,
ohikoa da mendi magaletan.
Besteak beste, bere berezitasuna da loreak horiak
nahiz gorri kolorekoak izan daitezkeela;
zenbaitetan bi motak elkarren ondoan hazten dira.

Orquídea (Orkidea). *Orchis sambucina*

Otra orquídea de montaña,
aunque desciende más que la anterior,
siendo frecuente en praderas del piso montano.
Tiene la particularidad de que sus flores pueden ser
tanto de color amarillo como rojas,
a veces crecen ejemplares de los dos tipos uno junto a otro.



BELAR-MOTA ESPEZIEAK



ESPECIES HERBÁCEAS



Ahabia (Arándano). *Vaccinium myrtillus*

Erikazeoen familiakoa da.

Askotan txilar artean sortzen da, zuhaixka izatera iristen ez den landare hori.

Mendi estaietatik hasi eta goi-mendietara bitartean sortzen da.

Hosto iraunkorrak ditu.

Ahabi izeneko fruitu urdin ilunak ematen ditu, eta espezie askok estimatzen ditu jateko, baita mermelada gozoa egiten dakien gizakiak ere.



Arándano (Ahabia). *Vaccinium myrtillus*

Ericácea.

Subarbusto de hoja perenne que crece desde el piso montano hasta el alpino, en bosques claros, turberas y landas, muchas veces mezclado con brezos.

Sus frutos azul negruzco, los arándanos, son muy buscados por diversas especies... incluido el hombre, que prepara con él una rica mermelada.



Erroiza (Rododendro).

Rhododendron ferrugineum

Erikazeoen familiakoa da. Zuhaixkatxo honek bere hostoak oso berdeak eta distiratsuak ditu gainaldean, baina azpialdeak herdoil antzekoak. 1,5 m hazi daiteke. Pirinio mendien beheko mailetan agertzen da pinu beltzen artean. Baina zuhaiztien mugetatik haratago ere hedatzen da beste sastraken arteko izanez.

Rhododendro (Erroiza).

Rhododendron ferrugineum

Ericácea. Arbustillo de hojas de un verde lustroso en el haz y color roña por el envés. Puede alcanzar 1,5 m. de altura. Aparece ya en la zona subalpina, entre los pinos negros y forma parte de la vegetación arbustiva que se extiende más allá del límite del arbolado.

BELAR-MOTA ESPEZIEAK



2009ko apirilaren 30an
Langilearen Egunaren bezperan
burutu zen liburu honen argitalpena.

La edición de este libro concluyó
el 30 de abril de 2009
víspera del Día del Trabajador.
